

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko urtarrilaren 18a / 480. zenbakia



## Iñaki Galvo

Espainiako ziklo-kross txapelketan bikain

ZUBIAURREKO TUNELA: BUKATU DUTE ZULATZEN/6 • MIZPIRUALDE: BERRITZE LANAK AMAITZEAR/14



# 2001-2002 EUSKARA IKASTAROAK

## MATRIKULA ZABALIK

### ESKAINNTZA

Euskalduntze eta alfabetatze  
maila guztiak.  
EGA.

### BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 08:30-13:00  
Arratsaldez: 14:30-18:30

### MATRIKULATZEKO EPEA

Urtarrilaren 21etik  
otsailaren 1era.

16 urtetik gorakoentzat.  
Bekatze sistema eta diru  
laguntzak ditugu.

## BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA  
Tel.: 943 76 44 53  
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net  
berg.euskudal@euskalnet.net

UDAL  
EUSKALTEGIAK



# Zuk ahal duzu

MATRIKULA ZABALIK





## ATREBENTZIA EZ PADA / Bizitza artifizialki luzatu ala hiltzen lagatzian aldekoa za?



**MAITE MUÑOZ**  
50 urte



**PILAR ORMAZABAL**  
52 urte



**PILAR ALTUNA**  
51 urte



**BRIGIDO GONZALEZ**  
29 urte



**KOLDO OTXOA**  
44 urte



**NURIA BARCENA**  
25 urte

Neri hiltzen lagatzia eskatuko neuke. Baiña gero, jende gaztia ikusten dozunian, eta medikuntzak hainbeste aurreratzen dau... Dudak sorzen jatela. Beste bategatik ez neuke erabakiko.

Hiltzia azkena da. Jangoiak emon dosku bizitza eta berak daki zer egin gure bizitzakin. Bera da erabakiko dabena gu noiz hil bihar garen. Hori ez dogu erabakitzen.


Nik nahixagoko neuke hiltzen lagatzia. Begetal baldin banago, ez naiz ez ni bizi, ezta ingurukuei bizitzen lagatzen be. Esperantzarik ez daukatela esaten badosote, ba...

Zaila da. Familiako bat holako egoeran egongo bazan, urte bat edo itxoin egingo neuke. Esperantza da beti azkena galtzen, eta medikuntzak asko aurreratu dau.

Bai ni izan gaixua edo familiakoren bat izanda be, duda barik hiltzen lagako neuke. Daukaten edadiakin esanez gero sendatu ezin dan kantzerra daukatela, ez nuke dudauko.

Galdera zaila da. Ez naiz iñoiz egoera horretan egon, baiña uste dot, familixakua izanda, hiltzen lagako nekela. Batez be gurasuekin eta honen inguruan berba egin izan dogulako.

## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK LABEGARAIETAKO SAIHESBIDERAKO IRTEERA** Ezin esan bidegurutze oso aproposa denik aipatzen duguna. Azkenengo istripua joan zen eguenean gertatu zen. Labegaraietatik saihesbidera ateratzera zihoazela, bi lagun larriki zauriturik gertatu ziren. Ez da lehenengo aldia, makina bat istripu gertatu da bidegurutze horretan. Nola ekin istripuok? /M.B.

## ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

### Arrizuriaga parkea

Parkea egokitu eta antolatzeko aurreproiektua eginda dago eta Udala txostena aztertzen ari da.

KIROLAK /10

### Iñaki Calvo bikain

Hamazazpi urteko txirriindulari bergararra 9. sailkatu zen Espainiako zirklo-kros txapelketan.

KULTURA /12

### Amodiozko Gutunak

Amodiozko Gutunen X. lehia-ketara aurkezteko epea amaituta, 107 lagunek hartu dute parte.

## ASTEKO DATUA

# 27

### MIZPIRUALDE KONPONTZEN GASTATUTAKO MILIOIAK

Egunotan amaitzekoak dira Mizpirualdeko berritze lanak. 2000ko urrian jarri ziren martxan eta uste baino gehiago atzeratu dira. Aurrekontua 162.273 euro ingurukoa (27 milioi pezeta) izan da.

## BESTE EKESANA

**“Futbola masa fenomeno bihurtu da. Horrelako fenomeno batek eragiten dituen pasioekin. Horregatik nago gaur haserre. Athleticzale batzuen erreakzioa, sasoi baten Realzale batzuek izan zutena bezalakoak; entrenatzaile batek egindako deskalifikazioak; elkarriz mesprezua adierazteko esandakoak; bie kalte egin gura dutenak pozez zorutzen egotea... Horiek guztiek asaldatu egiten naute. Ezin dut ulertu San Mamesen "a segunda, a segunda" oihukatzen zutenen jarrera. Nik gura dudana da besteak mailaz jaitea, madrildarrak-eta. Eta, gero, Euskal Herriko selekzio ofizialak haiei irabaztea. Ghanari eta Marokori irabazi zien moduan.**

**MARTIN GARITANO**  
Gara/02-01-16

## BERAIEKDIÑO / Ane Miren Etxeberria



### Kontsumismoa

**G**abonak pasatu dira eta dagoeneko hasi gara ia denok, pasatu diren egunetako gehiegikeriez eta horiek gure poltsikoan dituzten eraginez arduratzen. Izan ere, Gabonak, gehiegizko kontsumorako prestatuta dauden egun seinalatuak dira, non ez zaigun axola, dirudienez, soldata ia osoa gastatzea gure senideen artean goxo-goxo eta lasai egotearren. Baina orain urtarrilean gaude, eta aurrera jarraitu behar hori gogorra izaten da bat baino gehiagorentzat, izan ere urte berriaren hasierak, urtarrileko aldapa delakoaren hasiera adierazten du, eta atsekabeak eta desilusioak sortarazten. Baina honela ere ez diogu gure poltsikoari arnasa hartzen uzten, zeren orain, Olentzero eta Errege egunak pasatu direla eta, beharpenak denda guztietan. Duela hamar egun erositako arropa edo jostailu berbera askoz merkeagoa, eta zer egiten dugu? Ahaztu zenbat ordaindu

dugun (eta baita gure kontu korrontearen beherakada) eta ganga bat delakoan erosi. Bizi garen mundu globalizatu eta kapitalista honetan, kontsumoa da nagusi. Momentu oro kontsumitzen ari gara, dirua gastatzen, beste nonbaiten kanpo zorraz leporaino edo gosez hiltzen dauden bitartean, baina badirudi benetan ez zaigula ezer axola, gogorra izan arren onartzea, guran pentsatzen baitugu bakarrik, gure ongizate eta aberastasunean. Baina zer egin? Bizitza sistema honek bertara bultzatzen gaitu, eta nahiz eta noizean behin gure kontzientzia garbitu ekintza solidario batekin, zaku berdinean kokatzen gara denok inongo salbuespenik gabe. Hori guztia aldatzea oso zaila da, baina Gabonetan pittin bat kontrolatuz gero, urtarrila igarotzea errazagoa egingo zaigu, eta gure poltsikoak eskertuko du, horretan, behintzat, dudarik ez izan.

**“Bizi garen mundu globalizatu eta kapitalistan, kontsumoa da nagusi. Momentu oro kontsumitzen ari gara”**

# Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea, 33  
20570 BERRIGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar  
MAKETAZIOA  
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILEAK  
Luis Mari Agirre,  
Maitane Arizabaleta,  
Juan Martin Elexpuru,  
Miguel Angel  
Elkorobereziabar

LEGE-GORDAILUA  
55-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala



**GUARDIAKOFARMAZIAK**

**EGUBAKOITZA, 18**  
GUALLAR, San Antonio 5. .... 943 76 11 05

**ZAPATUA, 19**  
ESTELLA, Matxiategi 5. .... 943 76 19 63

**DOMEKA, 20**  
ESTELLA, Matxiategi 5. .... 943 76 19 63

**ASTELEHENA, 21**  
MOZOS, San Pedro 4. .... 943 76 12 15

**MARTITZENA, 22**  
CAMACHO, Oxirondo 4. .... 943 76 11 74

**EGUAZTENA, 23**  
PUY, Barrenkale 25. .... 943 76 16 87

**EGUENA, 24**  
GUALLAR, San Antonio 5. .... 943 76 11 05

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

Anbulatorioa (txanda) .... 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa .... 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa .... 943 76 62 46

Ertzaintza .... 943 76 53 40

Osasun etxea .... 943 76 24 40

Asepeyo .... 943 76 16 43

Pakea .... 943 76 13 49

Angiozarko medikua .... 943 78 90 27

Antzuolako medikua .... 943 76 62 23

Odol emaleak .... 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak .... 943 76 51 06

**GARRAIOAK**

Taxiak .... 943 76 19 50

**UDALA**

Bergarako Udaletxea .... 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea .... 943 76 62 46

Udal Artxiboa .... 943 77 91 32

Igerilekuak .... 943 76 20 51

Kultura etxea .... 943 77 91 58

Liburutegia .... 943 77 91 62

Kirolegia .... 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza .... 943 76 13 68

**BESTELAKOAK**

Epaitegia .... 943 76 14 92

Erregistroa .... 943 76 13 15

Jardun .... 943 76 36 61

Idolaz .... 943 76 65 08

Erretiratuen etxea, Bergara .... 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71

Postetxea .... 943 76 26 85

Bedelkar .... 943 76 04 68

Akulu AEK. .... 943 76 05 18

Udal euskaltegia .... 943 76 44 53

Bergarako notariotza .... 943 76 10 73

**MEZAK**

<b>Santa Marina</b>	Domekak: 10:30.
Domekak:	<b>Labegarieta</b>
11:30, 13:00.	Domekak: 11:00.
Zapatuak: 19:00.	<b>San Lorenzo</b>
Lanegunak: 19:15.	Zapatuak:
<b>San Pedro</b>	20:00.
Domekak:	<b>Angiozar</b>
09:30, 12:30.	Domekak:
Zapatuak eta	11:30.
lanegunak: 19:00.	<b>Moja</b>
<b>Sierbak</b>	<b>Zaharrak</b>
Lanegunak: 19:30.	Lanegunak: 8:00.
<b>Osintxu</b>	<b>Mizpirualde</b>
Domekak: 12:30.	Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 19:00.	Zapatuak: 17:30.
<b>Elosu</b>	<b>Antzuola</b>
Domekak: 10:30.	Domekak:
<b>Ubera</b>	09:00, 11:30.
Domekak:	Zapatuak eta
10:30.	lanegunak: 19:30.
<b>San Juan</b>	<b>Uzarraga</b>
Domekak: 11:00.	Domekak: 10:00.
<b>Elorregi</b>	

**URTE-MEZAK**

**Santa Marina**  
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

**San Pedro**  
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

**OHARRAK**

**1927AN JAIOTAKOAK**  
1927an jaiotako bergararrek diamantezko ezteiak ospatuko dituzte urtarrilaren 26an. Egun horretan, 13:30ean elkartuko dira txikiteoa egiteko, eta 14:30ean, bazkaria egingo dute Zumelaga jatetxean. Bazkarirako izena ematea Euskadiko Kutxako bulegoetan egin daiteke (2.000 pezetako depositoa ordaindu beharra dago).

**1956AN JAIOTAKOAK**  
1956an jaiotakoen afaria urtarrilaren 26an Txuringo jatetxean. Afaltzera autobusean joateko, frontoian elkartuko dira 20:30ean. Izena ematea 943 76 48 63 zenbakian.

**BERGARA KE-REN ZOZKETA**  
Bergara KEren Gabonetako zozketan bigarren sariak ez du jaberik oraindik. Saritutako zenbakia 3.635 izan da. Txartelaren jabea BKEko ordezkariekin jar daiteke harremanetan.

**BEDELKARREN ZOZKETA**  
Bedelkar dendarien elkarteak eginiko zozketan ondoko zenbaki hauek izan dira sarituak: 29.704, 77.345, 7.692, 46.829 eta 110.597. Saritutako zenbakien jabeek 600 euroko (100.000 pezeta) erosketa-bono bana jasoko dute.

**JARDUNENAGENDA**

**JARDUERAK GAZTETXOENTZAT**  
Zapatuan eta domekan jolasak izango dira Kartzelan, 16:00etan. Jarraian, 17:00etatik aurrera, bertso eta pandero ikastaroak.

**NUTRIZIO IKASTAROA**  
Jardunek nutrizio ikastaroa antolatu du, otsailaren 18tik aurrera. Izena ematea eta argibideak: 943 76 08 19.

**URBANOENORDUTEGIA**

**San Lorenzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

**GERALEKUAK:** San Juan (Torunas aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegarieta / Olabarretik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

**GERALEKUAK:** Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolonia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN**


**Kartzela Zaharraren berrikuntza lanak amaituta**

1992ko urtarrilean amaitu ziren Kartzela Zaharra berritzeko lanak. Debagoieneko Mankomunitateko Lanbide Eskolako 40 bat ikaslek jardun zuten lanean 1990eko otsailetik. Anselmo Iñurategi arkitektoaren berritze proiektuak 18 milioi pezeta inguruko aurrekontua izan zuen.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*“Urzulua”*



Ur asko edaten duena, urzale amorratua.  
-Gure mutikua urzulo demasa da.

GORKA ORTEGA

**HAUGIROA!**

**MINIMOA**  
Zapatua, 12 **-3 °C**

**MAXIMOA**  
Zapatua, 12 **13 °C**

**ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)** **20,2 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 9	12 °C	-1 °C	- l/m <sup>2</sup>
Eguena, 10	12 °C	-2 °C	- l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 11	12 °C	-2 °C	- l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 12	13 °C	-3 °C	- l/m <sup>2</sup>
Domeka, 13	11 °C	4 °C	3,3 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 14	12 °C	5 °C	0,2 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 15	10 °C	5 °C	16,7 l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**ASTEKO FILMAK**

**‘HARRY POTTER Y LA PIEDRA FILOSOFAL’**

**ZUZENDARIA:** CHRIS COLUMBUS. **AKTOREAK:** DANIEL RADCLIFFE, RICHARD HARRIS.

**HARIA.** J.K. Rowling idazlearen nobelan oinarritutako filmak sekulako arrakasta lortu du mundu osoan.

**TOKIA ETA ORDUA.** Novedadesen. Egubakoitzean 22:30ean; zapatuan 16:45ean, 19:30ean eta 22:30ean; domekan 16:45ean, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean 19:30ean.

**PUNTUAZIOA:** ● ● ● ● ●



**‘SUNSHINE’**

**ZUZENDARIA:** ISTVÁN SZABO. **AKTOREAK:** RALPH FIENNES, ROSEMARY HARRIS, RACHEL WEISZ.

**HARIA.** Familia bateko ezkutuko pasioei buruzko film erromantikoa errodatu du István Szabo zuzendari ospetsuak. Ralph Fiennes (*Gaixo ingelesa*) eta Rachel Weisz (*Enemigo a las puertas*) aktore ezagunak erreparto buruan.

**TOKIA ETA ORDUA.** Novedades aretoan. Eguenean, hilak 24, 20:00etan.

**PUNTUAZIOA:** ● ● ● ● ●

**BERGARA**  
*Margoak*

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es



**HIRIGINTZA/** Aurreproiektua amaituta dago eta Lur-Paisajistak, SL enpresak egin du

# Arrizuriaga parkea egokitu eta antolaketa berria ematea aztertzen ari da Udala

MONIKA BELASTEGI

**Arrizuriaga parkea egokitu eta antolatzeke aurreproiektua egin du Lur-Paisajistak, SL enpresak Udalaren eskariz. Parkeak orain arte hiru eremu bereizi izan direnak batuko ditu. Udala aurreproiektua aztertzen ari da egokitzapenik egin behar zaizkion ikusteko.**

Udala Arrizuriaga parkea egokitzeko aukera aztertzen ari da. Egokitze horren barruan, parkearen antolaketa berria dago aurreikusita. Antolaketa horren arabera, etorkizuneko parkea ez da Arrizuriaga jauregiaren lorategi bakarrik izango; hori baino zabalagoa izango da. Hiru eremu izango ditu bere baitan: batetik, Arrizuriaga etxe lorategia; bestetik, Bidekurutzeta 46 zenbakiko lorategia, eta, azkenik, Bidekurutzeta 46ko lorategiaren behealdean dagoen eremua, hau da, botako duten adreilu gorritzko txaletaren eremua. Parke berriak, beraz, hiru eremu horiek batuko lituzke.

Asmo horiek guztiak gauzatzeko aurreproiektua eginda dago dagoeneko. Lur-Paisajistak, SL enpresak egin du eta Udalean ere aurkeztu du. Orain, Udal agintariak aurreproiektua aztertzen ari dira, eta hainbat aldaketa ere egingo dizkiotela aurreratu digu Jose Antonio Etxeberria Hirigintza zinegotziak. Udalean aurreproiektua aztertu eta egin beharreko aldaketa eta iradokizunak jaso ostean, parkearen gaineko proiektua egin beharko dute. Hori guztia kontuan hartuta, Lur-Paisajistak, SL enpresak egindakoa zirriborroa baino ez da oraindik, arestian aipatu bezala behin betiko proiektua egin arte.

## ESPazio DESBERDINAK

Lur-Paisajistak, SL enpresaren ikuspegitik, hiru eremuen arteko lotura egokia aurkitzea oso garrantzitsua da. Horixe da parkearen antolaketa berrirako egiten duten proposamen nagusia. Beharrezkotzat jotzen dute parkean espazio desberdinak sortzea, bakoitza bere nortasunarekin, eta, beraz, eremu bakoitzaren nortasuna indartzea proposatzen dute.

Hori horrela, hiru eremuak elkarrengandik bereizten dituzten harrizko bi paretak mantentzea proposatzen dute (botako duten adreilu gorriko etxea inguratzen duen harrizko horma), eta hiru eremu sortuko lituzkete: goiko zatia, eta behealdeko bi zatiak.

Goiko aldeari dagokionez, eremu bakar bat osatuko lukete Arrizuriaga etxe inguruko eta sarrerako lorategiak eta Bidekurutzeta kaleko 46. zenbakiko lorategiak batuz.



MONIKA BELASTEGI

Udalaren asmoak aurrera eginez gero, aisialdirako gune aproposa bilakatuko da Arrizuriaga parkea.

*Arrizuriagako lorategiaz gain, beste bi gunek ere osatuko dute Arrizuriaga parkea*

Beheko aldean egongo lirateke beste bi eremuak: batetik, lorategi berria, hau da, bota behar duten adreilu gorriko txaleta dagoen eremua; eta, bestetik, lorategi zaharra, hots, Arrizuriaga jauregiaren ostean dagoena.

Horrez guztiaz gainera, gune

*Parkeak hiru eremu izango ditu. Hiru eremuak harrizko bi hormez bereiziko dira*

bakoitzean lorategi eta berdeguneak egokituko dituzte, eta parkea zeharkatzeko bidezidorra ere egingo dute. Gainera, gaur egun sarrera bakarra dagoen arren, parkerako lau sarrera aurreikusten ditu aurreproiektuak: gaur egungoa, Ramon Maria Lili-

*Aurreproiektuak jasotzen duenez parkea antolatzeke lanek 127 milioiko aurrekontua du*

tik bigarrena, Espoloi kaletik hirugarrena, eta botako duten etxea dagoen ingurutik laugarrena.

Aurreproiektuak jasotzen duen aurrekontua 763.285 euro ingurukoa da (127.000.000 pezetatik gorakoa).

## ORAINGOZ JAUREGIAREN AURREKO ALDEA

Jose Antonio Etxeberria Hirigintza zinegotziak aurreratu digunez, eta betiere kontuan hartuta oraindik proiektua egin gabe dagoela, bere batzordeak, aurtengo aurrekontuetan parkea egokitzen hasteko partida bat sartzeko asmoa du.

Diru partida hori Arrizuriaga jauregiaren aurreko aldean dagoen parke zatia konpontzeko bakarrik izango da. Etxeberria zinegotziak esan duenaren arabera, egoera nahiko kaskarrean dago, eta herritarrek beste aisi-gune bat izan dezaten konponduko dute zati hori.

## Zuhaitz handi, eder eta osasuntsuak

Lur-Paisajistak, SL enpresak egindako txostenean, hiru guneetan dauden zuhaitzen edertasuna aipatzen dute.

Hirurogeita hamar zuhaitz inguru daude, eta guneka honako zuhaitz hauek aurki daitezke hantxe: Arrizuriaga jauregiaren goiko aldean, sarreran, zuhaitz nagusienak indigaztain bat eta magnolia bat dira. Etxearen alboetan astigarrak dira nagusi, eta atzealdean, berriz, zuhaitz oso baliotsuak daude: hiru zedro, espezie

desberdineko bost ezki eta zenbait astigar.

Bidekurutzeta kaleko 46. zenbakiko lorategian zuhaitz gutxi dagoela jasotzen du txostenak, baina oso handi eta osasuntsuak. Aipagarrienak bi indigaztain, astigar bat, magnolia bat eta libozedro bat dira.

Azkenik, adreilu gorriko etxea botako den guneko zuhaitzak ez dira beste bi lorategietan daudenak bezain handiak; aipagarriena astigar bat da.

Hori guztia kontuan hartuta, zuhaitz guztiak mantendu eta parke berriko egokitzapenak dagoen landaretzara egokitzea proposatzen du aurreproiektua egin duen Lur-Paisajistak, SL enpresak.

Landaretza berria ere jarriko dute, hala nola, lore zuria ematen dituzten gerizondo japoniarrak, loraldi oparoa duten tamaina txikiko sagarrondoak, eta hainbat lore mota, gramineo loreak, esaterako.



ERREPIDEAK/ Ekialdeko saihebidia, guztiz, aurtengo irailaren 5erako amaituko dute

# Martitzenean bukatu zuten Zubiaurreko tunela zulatzen


MONIKA BELASTEGI

Martitzenean bukatu zuten Zubiaurreko tunela zulatzen. Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuak aurrez ikusitako epean amaitu dute, eta, era berean, "indusketa lanak gorabehera berezirik gabe" egin dituztela azaldu dute.

Martitzenean, hilaren 15ean, bukatu zuten Zubiaurreko tunela zulatzen. 320 metro luze ditu, eta zulatzeke, hainbat leherketa egin dituzte, eta metodo *austriarra* erabili dute.

Tunelaren ebakidura 11,5 metro zabal da eta zabalera horretan 3,5 metroko bi errei, metro eta erdiko bi bazterbide eta alde bakoitzean 0,75 metroko espaloiak ditu.

Indusketa lanak urriaren 9an hasi zituzten eta aurrez ikusitako epean amaitu, Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuak igorritako oharraren arabera. Horrez gainera, indusketa lanak "gorabehera berezirik gabe" egin dituztela ere aurrera-tu dute.



Tunela 320 metro luze da, eta 11,5 metro zabal.

MONIKA BELASTEGI

Zubiaurreko tunela Bergara-ko ekialdeko saihebidearen parte da, eta Garraio eta Errepideetako oharrak gehitzen duenez, saihebidia ere aurrez ikusitako eperako amaituta egongo da, 2002ko irailaren 5erako, hain justu ere.

## TRENBIDE ZAHARREKO ZUBIA ITXITA

Trenbide zaharreko zubia -Ibargarai kaleko etxe berrien ostean dagoen zubia- konpontzeko lanak hasi dituzte aste honetan. Hori horrela, lanak egin bitartean itxita egongo da. Hortaz, Kataibia aldera ezin izango da handik joan.

# Batasuneko Udal taldeak bat egin du Udaleko langileen erabakiarekin

MONIKA BELASTEGI

Batasuneko Udal taldeak bat egin du Udaleko langileek urriaren 12a eta abenduaren 6a lanegun izateko egindako eskariarekin. Aldi berean, salatu egiten du Gobernu taldeak eskaria ukatu izana.

Udaleko langileek urriaren 12a (Espainiako festa nazionala) eta abenduaren 6a (Konstituzio eguna) lanegunak izateko egin duten eskariaren gaineko eta Gobernu taldeak hartutako erabakiari buruzko oharra kaleratu du Batasuneko Udal taldeak.

Oharraren bidez, Batasuneko kideek zoriondu egiten dituzte Udaleko langileak, hartutako erabakiarekin, eta bat egiten dute erabaki horrekin. Aldi berean, salatu egiten dute Gobernu taldeak hartutako erabakia, hau da, "indarrean dagoen legedia espainola errespetatu behar delako" langileen eskaera ez onartzea.

Bi arrazoiengatik salatzen dute Udal Gobernuaren jarrera: batetik, langileen nahiaren kontra eta bergarar ia gehien nahiaren kontra doala uste dutelako, eta, bestetik, "beste batzuetan egin duten moduan gobernu espainolaren morroi gisa ager-

tzen direlako eta marko horretatik haratago joateko ausardia edo nahia ez dutelako azaltzen".

## PAUSO TXIKI BAINA GARRANTZITSUA

Euskal Herriak bizi duen egoera gainditu eta euskaldunon nahiaren errespetuan oinarritutako bakea lortzeko bidean, derrigorrezkoa ikusten dute Batasuneko kideek gure herria gaurdanik eraikitzen jardutea. Horren haritik, langileen eskaera gauzatzea pauso txiki baina garrantzitsua izango litzatekeela uste dute, batez ere, Euskal Herrirako lanharremanetarako marko propioaren borrokan.

## LABUR

### Kantabriako gazta eta Baños de Ebroko ardoa protagonista Gure Ametsa elkartearen

Gure Ametsa elkarteko kideek Kantabriako gaztaren gainean hitzaldia antolatu dute, baita dastatzea ere. Ekitaldia urtarrilaren 24an izango da, 19:30ean, elkartearen bertan. Hitzaldia eta dastatzea Kantabriako Gaztaren Kofradiako presidente eta Santanderko Zacarias jatetxeko nagusi Zacarias Puentek egingo ditu.

Ekitaldi berean Baños de Ebroko Hermanos Oteroren bodegako ardo baten aurkezpen eta dastatzea egingo dituzte: 2001eko uztako Vegalur ardoaren aurkezpen eta dastatzea. Gero, afaria egingo dute. Izena emateko epea hilaren 21ean bukatuko da.

### Osasunaren autogestioan sakontzeko beste bi saio astelehenean eta eguaztenean

Osasunaren autogestioan sakontzeko ikastaroaren barruan, beste bi saio egingo dira datorren astean, astelehenean eta eguaztenean, hain zuzen ere. Udaleko Ongizate Zerbitzuak antolatu du eta Sumendi elkarteko kideak arduratuko dira ikastaroaz.

Astelehenean, *Bizitzaren medikalizazioa: Osasunaren inguruko mitoak* gaia landuko dute, eta eguaztenean, berriz, *Osasuna, botere pertsonala berreskuratzeko bidea*. Bi saioak kultura etxean izango dira, arratsaldeko zazpitan, eta, gutxi gorabehera, bi ordu iraungo dute.

Saioetan partaideen parte hartzea eta protagonismoa sustatuko dira. Ildo horretatik, zenbait gelatan eremu berezi bat atonduko dute talde dinamikak egiteko.



### 23 lagun etxeko lanak trukatzeko ikasten

Guztiz arrakastatsua izan da etxeko ardurak gizonen eta emakumezkoen artean trukatzeko tailerra. 23 lagunek eman dute izena: 13 emakume eta 10 gizon. Dagoeneko bi saio egin dituzte, bata astelehenean eta bestea eguaztenean. Tailerraren helburua da normalean emakumeek etxean egin izan dituzten lanak gizonen ikastea, eta alderantziz.



**GAZTELU**  
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

*izeder*

ARTE DEKORATIBOKO  
ikastaroak

943 76 71 05.  
Arruriaga 2. BERGARA

**SANTOS**



Etxetresna elektrikoak  
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA  
Tf. 943 76 26 10

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 /  
666 517 295



ELKARRIZKETA

MIKEL PIKAZA/SUMENDI ELKARTEKO KIDEA

# “Gaur egun, ez dugu gure gorputza errespetatzen, eta osasuna kaltetzen dugu”

MONIKA BELASTEGI

Astelehenean hasi eta Aste Santura arte, osasunaren autogestioan sakontzeko ikastaroa egingo du Sumendi elkarteak kultura etxean. Astelehenetan eta eguaztenetan izango da, 19:00etan. Hori guztia Mikel Pikazak azaldu digu.

### Zein da ikastaroaren helburua?

Oso xumea da: hainbat baliabide ematea hurbiltzen direnei, bizitza hobeto erabil dezaten. Zer da bizitza hobeto erabiltzea?

Guztiok nahi dugu bizitza ona izan, hau da, kezka barik bizi izatea, maitasuna izatea, dirua izatea, lagun asko izatea, osasun fisikoa izatea... Horiek guztiek bizitza ona izatea egiten dute. Zuek, orduan, bizitza on hori lortzeko baliabideak emango dituzue ikastaroan.

Bai. Esate baterako, osasun

psikologikoan, ba, depresiotik ateratzeko, obsesiotik ateratzeko, tristuratik ateratzeko baliabideak ematen saiatzen gara. Azken baten, barruan ditugun zama horiek arintzeko.

Horretarako baliabideak eskaintzen ditugu eta ikastaroa etortzen direnek gauza berriak ikasteko planteatuta dago. Gauza berriak edo gutxi entzunak, behintzat. Bestalde, oso ikastaro erraza da, azaltzen ditugunak oso errazak eta erabilgarriak dira. **Bi ataletan banatu duzue ikastaroa. Zuk osasuna ikuspuntu psikologiko eta sozialetik landuko duzu.**

Bai. Gaur, esaterako, honelako gauzak landuko ditugu: zer gara gizakiak eta zerez eginak gaude, gizatasuna berreskuratzea, bizitza arte bezala, eta gure harremanetako osasuna.


**Gauza sinpleak direla esan duzu lehen. Baina, agian, ahaztuta ditugunak edo albo batera utzitakoak.**

Bai. Gaur egun daramagun bizimoduak horrelakoak ahaztera bultzatu gaitu. Beti zerbaiten bila gabiltza, estresatuta. Gure aiton-amonak baserrian nola bizi ziren gogoratzen badugu, zera ikusiko dugu, agian gauza askorik ez zutela izango, baina lasai, behintzat, bizi zirela; pentsatzeko harremanetan sakontzeko denbora zutela. Guk ez duguna.

Guk bizimodu haiek erreperatu nahi ditugu, harreman onetan sakondu, baita gure gorputzarekiko errespetuan ere.

Gaur egun dugun bizimoduarekin gure kontra egiten dugu. Presaka bizi gara, lan astunak ditugu, kredituak... ez dugu gure gorputza errespetatzen. Ez dugu gure gorputzaren erritmoa errespetatzen, ezta besteen erritmoa ere. Eta gure osasuna kaltetu egiten dugu.

Hori guztia kontuan hartuta, gure helburua prebentzioa da, zer egin egoera horietara ez heltzeko.



MONIKA BELASTEGI



Ba al dakizu zer dagoen begirada eder baten atzean?...  
Eta aurrean?

# Multi ESKAINTZAK MULTIOPTICAS

BONARDI  
AIREKO  
ARMAZOI  
BERRIAK

# 49

8.153 € pta.

## MULTIOPTICAS



BERGARA  
Tel. 943 76 15 75



ARRASATE  
Tel. 943 79 29 95



ORDIZIA  
Tel. 943 88 99 88





## LOKATZAK ETA BERGARA KIROL ELKARTEAK EMAN DITUZTE SARIAK

Joan den astean, egunean, banatu zituzten euren zozketetako sariak Lokatzakoek eta Bergara Kirol Elkarteak. Lokatzakoek, zelan ez, bizikleta bat zozkatu zuten. Jon Arizagak irabazi zuen, 8.795 zenbakidun txartelari esker. Bigarren sariduna ez da oraindik azaldu. 6.536 zenbakiduna da, eta bi lagunendako afaria dauka zain Zumelaga jatetxean. Goian, ezkerrean, 12 bizikleta dendan ikus ditzakegu, 12ko Jesus Martin, Lokatzako Mikel Larrañaga eta Jon Arizaga irabazlea. Eskumako argazkian, berriz, Ignacio Oregi BKEko saskiaren irabazlea, Iñigo Zaitegi kirol elkartearen presidentearekin. 05.729 izan zen zenbaki irabazlea. Kasu horretan ere ez da azaldu bigarren sariaren irabazlea; 03.635 zenbakidun txartela izango da irabazlea.



## SOR NINAK EHUN URTE BETE DITU

Isabel Arantzabal uberarrak ehun urte bete zituen joan den zapatuan, urtarrilaren 12an. Leonen bizi da Isabel; karmeldar erlijiosoa da, eta Vedrunatar karmeldarren artean, mojarik zaharrena da. Zapatuan, haren urtebetetze egunean, omenaldia egin zioten komentuan. 18 urte zituela sartu zen moja; Gasteizen eta Asturiasen egon zen, eta handik Leonera joan zen. Isabel deitzen den arren, Sor Nina deitzen diote guztiak. Argazkian ikus daitekeen moduan, 100 urte bete dituen arren, ez ditu eguneroko zereginak alde batera laga, ezta gutxiago ere. Goizean goiz jaikitzen da eta ez du aspertzeko astirik izaten egun osoan. Egindako omenaldia zela-eta, *Diario de Leon* egunkarikoek elkarrizketa egin zioten. Zorionak, bada, Sor Nina eta urte askotarako!

## ZOKKETETAKO SARIDUNEN BILA

Etxeberria erloju denda eta Irudi bitxitegiak antolatutako zozketetan ez da sariduna agertu. Ez dituzte, bada, sari txarrak! Etxeberriaren kasuan, 1.835 zenbakidunak 1.200 euro irabaziko ditu (200.000 pezeta), eta 8.951 zenbakiak, berriz, 600 euro (100.000 pezeta). Irudi bitxitegiak, berriz, bi diamante zozkatu ditu, eta 1.886 zenbakidun txartela daukanak eramango ditu. Hortaz, badakizue, ondo begiratu etxean, ea zenbakiok topatzen dituzuen. Zorte on!



Sukaldeak.  
Horma armairuak.  
Neurrira egindako  
altzariak.  
Ateak eta leihoak.  
Arozlanak.

BERGARA. 943 76 58 86

Usoa Pub



943 76 38 57  
Irala 1. Bergara



Matxiategi  
Elektragintza  
S.L.

ELEKTRIZITATE MATERIALEN  
SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. BERGARA. 943 76 19 94.



## BERGARARRAK MUNDUAN

### MAIDER ELKORO

29 URTE / IRAKASLEA ETA ITZULTZAILEA / ERROMA

## “Kuriositateak bultzatuta alde egin nuen kanpora, eta ez ikasketa edo lanagatik”

AINTZANE IRIZAR

**B**adira hamar bat urte Mainerrek Bergararik alde egin zuela. Ingalaterrara joan zen, Londresera, oporretara. Selektibitateko azterketak egitera etorri zen Bergarara, baina dagoeneko argi zeukan Ingalaterrara bueltatuko zela, eta halaxe egin zuen. Londresen hirurte egin zituen, eta handik Bristolera joan zen.

Ez zen ikasketengatik joan, ezta lan kontuengatik ere: “Kuriositateak bultzatuta joan nintzen Bergararik kanpora”. Han eta hemen ibili zen lanean. Gustura ibili zen. Hango multikulturismoa gustatu zitzaion gehien: “Munduko etnia guztiak daude ordezkatuta Londresen, eta multikulturismo horrek munduarekiko beste ikuspegi bat izatea eragiten dizu”. Bestalde, hango lan-merkatua ere aipatu digu; hilerok lanez aldatzeko aukera ei dago: “Han inork ez du nahi bizi osorako lanik, inork ez du lan finkorik bilatzen”, diosku Mainerrek. Ez zitzaion batera zaila egin hango bizimodura moldatzea: “Gauza berriak, jendea ezagutzea, esperientzia berriak...”



asko gustatzen zait, ez didate beldurrik ematen”, azaldu digu. Ingalaterran eguraldia gustatzen zitzaion gutxien: “Eguraldia triste eta grisa da han”, gogoratzen du.

Bakardadea zer den ere badaki Mainerrek, hurbilekoengandik urrun egoteak


**“Aldaketa beharra sentitu nuen, eta horregatik etorri nintzen Bristoletik Italiara”**

bakardadea ekarri dio-eta behin baino gehiagotan.

Duela hilabete batzuetatik hona Italian bizi da: “Aldaketa beharra sentitu nuen, eta beste zerbaiten bila mugitu nintzen”. Horrela iritsi zen Italiara, eta orain, han bizi da. Ingeleseko eta gaztelaniazko eskolak ematen ditu, eta itzultzaile lanetan ere ibiltzen da.

Aurrera begira, ez ei dauka asmo jakinik: “Ez zait gustatzen planik egitea, izan ere, planak egiten ditudan bakoitzean, dena gaizki ateratzen zait”.

## MINGAINARITIRAKA



### Rene Waterhouse

INGELES IRAKASLIA

Rene duela 48 urte jaio zan, Zimbabwen; hogei urte zeuzkanian Ingalaterrara jun zan argazkilaritza ikastera, eta oin dala ia hogei urte Bergarara etorri zan, ingeles irakasle.

**Zelatan afrikar bat Bergaran?**

Ingalaterran ingelesa irakasten nenbillela, bergarar batzuk ezagutu nittuan, eta hona etortzeko aukeria euki neban. Zelakuak gara bergararrok afrikar edo britainiar baten ikuspuntutik? Oso jatorrak; egia esan, oso ondo hartu ninduten eta oin be oso ondo tratatzen nabe Bergaran.

**Irakasle gogorra zara?**

Bai eta ez. Ikasleie egin bihar dabena egin deixela exijitzen dotset, baiña, era berian, ulertzen dot, ingelesaz aparte jendiak badauzkala beste zeregin batzuk be.

**Zure lanian ze gustatzen jatzu gehixen?**

Jentia kin harremanetan jardutia. Asko interesatzen jat jentia ondo ezagutzia, bizitza honetan nor bere burua zelakua dan ezagutzeko gare.

**Eta gutxien?**

Ikasliak gogo barik etortzia eskoletara. Zela definiduko ziñuke zeure burua? Oso tolerantia naiz, bestiekiko errespeto osua daukat.

**Ze zaletasun dittuzu?**

Argazkilaritza. Horretaz aparte, artelanak eta rape kajak kolekzionatzen dittut. Urtaro bat?

Danak. Urtaro bakoitzak badauka bere “enkantua”.

**Kolore bat?**

Urdira, jakituriaren koloria dalako; gorrixa, energiarena dalako, eta bioleta, tolerantziarena.

**Bukatzeko, amets bat?**

Gauza batzuk egittia gustauko litzatake, baiña ez daukat ametsik.

AINTZANE IRIZAR

## NIREBIDAIAHURA / Ainara Zubia

MEXIKO / 2000ko uztaila

**L**agun batek eta biok gogo geneukan horrelako zerbait egiteko, eta Komite Internazionalistekin Mexikora joatea erabaki genuen. 24 bat egun egin genituen Komite Internazionalistekin, eta gero, beste pare bat aste geure kabuz ibili ginen Mexikon.

Distritu Federelean egun batzuk igaro genituen brigadako guztiok, eta gero, brigada taldetan banatu genuen; gure taldea Guerreroko estatura joan ginen, eta hango zerbait komunitate eta erakunde bisitatu genituen, emakume taldeak, batez ere. Handik Txiapasera joan ginen; brigadako gainerako jendearekin elkartu, eta elkarri gure esperientziak kontatu genizkion.


Txiapasen lanean ari diren hainbat erakunde ezagutzeko aukera izan genuen han. Brigada talde txikitik banatu berriro, eta Guatemalarekin muga egiten duen zonaldeko komunitate batera joan ginen. Toki zoragarria, benetan, dagoen pobrezia izugarria eta militarren okupazioa egongo ez balira, paradisua izango litzateke. Gure zeregina izan zen hango jendearen eta komunitateen egoera ikustea, eta, era berean, Euskal Herriaren berri ematea hango jendeari. Ez pentsa lan erraza denik haie entzutea, oso kontu gogorak entzun behar izan genituen.

Oso bidaia interesgarria izan zen, edozeini gomendatzeko modukoa. Gehien gustatu zitzaidana, beharbada, bertako jendea izan zen. Oso irekiak dira, umilak eta oso alaiak; dena dute emateko, nahiz eta ezer gutxi daukaten. Hiri handiak, berriz, ez zitzaizkidan batera gustatu, oso hiri masifikatuak dira, kaotikoak, kutsatuak... Esan bezala, oso esperientzia polita izan zen. Bukatzeko, esan behar da Komite Internazionalistak, beste erakunde askok bezala, lan handia egiten ari direla, eta hori eskertzekoa da.

AINTZANE IRIZAR



Guatemalarekin muga dagoen komunitate bat.



**“Hango komunitateen egoera ikustera joan ginen”**

**“Bidaia interesgarria izan zen, gomendatzeko modukoa”**

**ARRI**  
Industri hornidura

Zubiaurre, 30  
BERGARA  
Tf. eta faxa:  
943 76 19 04.  
Sakelakoa:  
656 78 64 84.

**DENA**  
**100etik**

**ZURE**  
**OPARIENTZAKO**

Simon Arrieta, 3  
BERGARA

**TOKI-ONA**  
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak  
Txitxizotzak  
Kazolatzak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel. 943 76 39 53

**Mujika**  
gozotegia



Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak


Artekalea 3 BERGARA  
943 76 10 34

**Radio**  
**Bergara**

Etxetresna elektrikoak  
Sakelako telefonoak  
Lanparak  
Opariak

San pedro 25  
BERGARA  
943 76 19 89





Iñaki Calvo bigarren urtez ari da ziklo-kros probetan parte hartzen, eta aurten denboraldi ona egiten ari da.

## TXIRRINDULARITZA

# Iñaki Calvo: "Nire ilusioa Belgikako ziklo-kros mundialera joatea da"

Domekan 9. sailkatu zen Duranan jokatuako Espainiako txapelketan, gazte mailan

EDU MENDIBIL

**Iñaki Calvo 17 urteko txirrindularia 9. postuan sailkatu zen gazte mailako Espainiako ziklo-kros txapelketan, domekan Duranan. Aurretik, abenduan, 3.a izan zen Gipuzkoako txapelketan eta 6.a Euskadikoan. Bere ilusioa munduko txapelketara joatea da.**

Iñaki Calvo ez zuen irteera onik egindomekako proban, eta kostatu egin zitzaion aurrenekoekin bat egitea. Bere hitzetan, "proba atzealdean hasia tokatu zitzaidan eta, horren ondorioz, arazok izan nituen erritmo egokia hartzeko lasterketa osoan zehar. Ez nuen eroso korritu". Partaideek bost bira eman behar izan zitzaizkien zirkuituar1 (2.400 metrokoa) eta, azkenik, Iñaki Calvo 9. postuan helmugaratu zen, Eladio Sanchez kantrabariarrarengandik 2 minutu eta 8 segundora hain zuzen. Hogeita hemezortzi partaide izan ziren Duranako proban. Joan zen urtean ere Espainiako txapelketan hartu zuen parte Iñakik. Orduan 18. postuan sailkatu zen.

### EGUNERO ENTRENATZEN

Iñaki Calvo ondo ari da aurten ziklo-kros denboraldian. Abenduan Aizarnazabalen jokatu-

ko Gipuzkoako txapelketan brontzeko domina lortu zuen, eta Euskadikoan, berriz, seigarrena izan zen. Itsasondon. Espainiako txapelketaren ondoren, beste bi proba jokatu ditu Iñakik: domekan, hilaren 20an, Muxikako lasterketan hartuko du parte, eta hurrengo astean Ispasterkoan. Ispasterkoa izango da munduko txapelketa aurretiko azken proba. Iñaki Calvo munduko txapelketara joateko ilusioa dauka: "badakit zaila dela, baina azken bi probetan ondo banabil, aukerak izan ditzaket otsailaren hasieran Belgikan izango den munduko txapelketan parte hartzeko.

Ni, nire mailarik onena ematen ahaleginduko naiz geratzen diren bi probetan. Ea gero hautatzaileak zer erabakitzen duen".

Bien bitartean gogor entrenatzen ari da Iñaki. Egutero hartzen du bizikleta eta ziklo-kros zirkuituak eta errepidea tartekatzen ditu. Ziklo-krosean aurten fizionatueta debutatuko duen Iker Sanchez lagunarekin batera entrenatzen da askotan. San Martzial inguruan entrenatzeko ohitura daukate. Eguaztenetan eta egubakoitzetan entrenatzen da ziklo-kroseko Iñaki, eta gainerako egunetan inguruko errepidean ibiltzen da.

## Maisu ezin hobea

Ziklo-krosean maisu ezin hobea dauka Iñaki Calvo. Espainiako txapelkun izandako Inigo Igartuarekin aritzen da: "teknika aldetik gauza asko ikasi ditut Inigorekin. Berak esperientzia handia du ziklo-krosean eta bere gomendioak oso baliagarriak izan zaizkit. Oso gustura ari naiz berarekin". Horrez gain, Iñaki Arratibel Banesto taldeko prestatzailea ohiak agintzen dizkio egin beharreko entrenamenduak. Astean hamabi bat orduz entrenatzen da negu partean. Abuztuan atsedena hartu eta irailean hasten da ziklo-kros denboraldia gertatzen. Gorabehera askoko zirkuituak atsegin ditu, bizikletatik jaiste eskatzen dutenak, eta ziklo-kroseko izarren artean Daniele Pontoni italiarra du gustuko.

## Bergara, Elgoibar liderraren aurka zapatuan, Agorrosinen

E.M.

Preferente mailako futbol taldeak Elgoibar liderra izango du bisitari zapatuan 16:00etan, Agorrosinen. Mahoneroek 3-2 galdu zuten domekan Tolosan, eta sailkapeneko 11. postuan dira, 30 punturekin.

Juanina Garairen taldeak aukera paregabea galdu zuen domekan sailkapenean gora egiteko. Azken jardunaldietan ondo aritu dira bergararrak, baina Tolosan luzapenean jasotako gol baten ondorioz, ez zuten punturik lortzerik izan. Sailkapeneko goialdeko taldeekiko aldea handituz

doa, eta beraz ezinbestekoa du Bergarak, zapatuan garaipena lortzea. Aurkari zaila izango dute aurrean: Elgoibar liderra dugu, 41 punturekin, eta gol gutxien jaso duen taldea da (18 gol). Hirugarren mailara igoera lortzeko faberitoen artean dira.

### BESTE HIRU PARTIDU

Nesken taldeak eta lehen erregionalak ere Elgoibarren aurka jokatu dute zapatuan. Nesken arteko partidua 12:00etan izango da, eta lehen erregionalakoa 18:00etan, biak Ipintzan. Domekan lehen mailako gazte taldeak Orioko izango du bisitari, 11:00etatik aurrera, Ipintzan.

## Manuel eta Plazaola Euskadiko eskubaloit taldearekin izan dira

E.M.

Arrate taldean ari diren Mikel Plazaola eta Iñaki Manuel bergararrak Euskadiko kadete selekzioarekin izan ziren Espainiako autonomia arteko txapelketan, Torreveijan. Euskadik 2. postua lortu zuen.

Iñaki Manuelek eta Mikel Plazaolak (15 urtekoak biak) bost partiduko jokatu zituzten urtarrilaren 1etik 6ra bitartean Euskadiko selekzioarekin. Lehendabiziko fasean, Andaluziari irabazi zioten gol bateko aldearekin, Madril aurka galdu egin zuten hiru golen tartearrekin eta, azkenik, Gaztela-Mantxa erraz menderatu zuten, 9 goleko abantailaz. Finalerdietan, valentziarrei nagusitu zitzaizkien, eta finalean Kataluniaren aurka galdu zuten.

Plazaolak eta Manuelek esperientzia oso positibotzat jo dute Euskadirekin aritu izana: "Arne-

dillo hautatzailearen deia jaso genuen, eta txapelketan jokatzeko aukera izan genuen biok. Pozik gaude egindakoarekin, nahiz eta finalean ez genuen partidua ona jokatu. Katalanak altuagoak ziren eta oso talde sendoa zeukaten". Manuel eta Plazaola hegalean aritzen dira, eta gol dezente egin zituzten autonomien arteko txapelketan. Aurreko denboraldian biek ere Gipuzkoako selekzioarekin jokatu zuten.

### ARRATERE KIN EUSKAL LIGAN

Iñaki Manuel bigarren urtez ari da Arraten jokatzeko, eta Mikel Plazaolak aurtengo denboraldian fitxatu zuen eibartarrekin. Euskal Ligan ari dira, Victor Debek entrenatuta. Astean hiru egun aritzen dira Ipuruan, eta 10 partiduko geratzen zaizkie liga bukatzeko. Euren hitzetan, "gustura gabilta Eibarren, eta datorren urtean gazte taldean jokatzeko asmoa dugu".



Iñaki Manuel eta Mikel Plazaola Euskal Ligan ari dira Arrate taldearekin.



## LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

### EMAITZAK

#### A MULTZOA

Bicip. Igartua-Torrekua	9-6
Bar Ugarte-Agirrebeña	12-5
Amilotx-Mongatxurak	0-3
Kanpazar-Agirrebeña	2-4
Komando Piperrak-Torrekua	6-13
Bar Ganbara-Amilotx	9-3
Bicip. Igartua-Eri	2-14

#### B MULTZOA

Vacalouras-Amoskibar	2-2
Etengabe-THT	0-3
Irubide-Bar Canalejas	2-2
Aterpe-Bar Bedarreta	2-9
Txipiron-Artekale	10-1

### PARTIDUAK

#### ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Bar Ugarte-Amilotx. Eri
10:30: Eri-Komando Piperrak. Amilotx
16:00: Torrekua-Kanpazar. Mongatxurak
17:00: Bicip. Igartua-Mongatxurak. Ganbara
18:00: Bar Ganbara-A Ze Flaxa. Dedo Pafa.
19:00: Dedo Pafarru-Pagomendi. Bayer
20:00: Argandolas-Bayer. Pagomendi

#### DOMEKAN, BARRUAN

9:30: Bar Bedarreta-Txipiron. Errotagain
10:30: Errotagain-Patxaran. Txipiron
11:30: Artekale pizz.-Irubide. Eri
12:30: Eri-Bar Ganbara. Artekale pizz.
16:00: THT-Aterpe. Mongatxurak
17:00: Mongatxurak-K. Piperrak. Timof.
18:00: Ortz-Timofonika. Bar Ugarte
19:00: Kanpazar-Bar Ugarte. Ortz
20:00: Bar Canalejas-Vacalour. Kanpazar

### ARGI IBILI!

#### HAMASEI PARRIDU ASTEBUKAERAN

Oraingo astebukaeran hamasei partidu izango dira Labegaraietako Kiroldegian. Guztiak Kiroldegiko barruko kantxan jokatu dira. Neguko hotzari aurre egin behar izatekotan, hobe barruan jokatzeko. Antolatzaileek puntualtasuna eskatu nahi die astebukaeran jokatzeko duten talde guztiei, atzerapenik ez egoteko.

#### PARTIDU BATEKO ZIGORRA

Kanpazar Harrobiak taldeko Haritz Elortza jokariari partidu bateko zigorra bete beharko du bi txartel hori ikusteagatik. Ondorioz, bere taldeak zapatuan duen partiduan zigorra bete beharko du eta domekako partiduan jokatzeko moduan izango da, Bar Ugarte taldearen aurkako norgehiagokan.

### GORA ETA BEHERA

#### TXIPIRON ETA ERI

A multzoan sailkapeneko 7. tokian dagoen Eri taldeak erraztasun handiz irabazi zion Biciprecision Igartua taldeari (14-2). B multzoan Txipiron beterranoek ere Artekale pizzeriakoei jipoi ederra eman zieten (10-1).

#### ATERPE ETA TORREKUA

Aterpe taldeak aukera paregabea galdu zuen Bar Bedarretaren kontrako partiduan liderarekiko alde murrizteko. Hala ere, 9-2ko emaitzarekin galdu zuten. Torrekua ustekabean galdu zuen Biciprecision Igartuaren aurka.

### SAILKAPENA

#### A MULTZOA

	P	J
1. A Ze Flaxa	30	12
2. Mongatxurak	27	13
3. Agirrebeña jatetxea	23	14
4. Bar Ugarte	22	11
5. Torrekua	18	13
6. Komando Piperrak	17	13
7. Eri	16	12
8. Kanpazar	16	12
9. Bar Ganbara	4	10
10. Amilotx	4	12
11. Biciprecision Igartua	4	13

#### B MULTZOA

	P	J
1. Bar Bedarreta	34	12
2. Bar Canalejas	25	12
3. Aterpe	24	12
4. Vacalouras	18	12
5. THT	17	12
6. Irubide	16	12
7. Amoskibar	12	12
8. Txipiron	11	12
9. Artekale	9	12
10. Etengabe	-3	12

#### C MULTZOA

	P	J
1. Errotagain	30	10
2. Artusamak	25	11
3. Bayer	21	12
4. Dedopafarru	19	11
5. Argandolas	16	11
6. Pagomendi	15	10
7. Ortz	7	11
8. Patxaran	6	10
9. Timofonika Team	3	11
10. Bildurbarek	0	0

## GAINBEGIRADA

### PILOTA

#### Bergara-Arrasateko martitzenean Udal Pilotalekuan, Deba Arroko txapelketan

Bergara KEko pilotariak Arrasateko taldearen aurka jokatu dute martitzenean Udal Pilotalekuan, 19:00etatik aurrera, Deba Arroko Txapelketaren barruan. Kadete, gazte eta senior mailako partiduak izango dira.

### TENISA

#### Jorge Aranes bergararrak Debagoieko masterraren finala jokatu du zapatuan

Domekan bertan behera geratu zen Debagoieneko tenis masterraren finala, euria zela eta. Zapatuan, hilaren 19an, Jorge Aranes bergararra eta Ismael Zubia oñatiarra aurrez aurre izango dira, Kiroldegian, 16:00etan. Bestalde, Eneko Ugalde bergararra 4. postuan sailkatu da.

### SASKIBALOA

#### Bergara KEko gazte taldeak Atletico San Sebastian hartuko du zapatuan Kiroldegian

Bergarako gazte mailako mutilen saskibalo taldeak Atletico San Sebastian taldearen aurka jokatu du zapatuan, Labegaraietako Kiroldegian, 12:15ean. Bestalde, seniorrek galdu egin zuten igoera faseko bigarren partidua Aldapetaren aurka (65-57).

### PILOTA

#### Esain-Beloki eta Olaizola II-Errasti bikoteak aurrez aurre zapatuan Udal Pilotalekuan

Binakako txapelketan, Esain-Beloki eta Olaizola II-Errasti bikoteek indarrak neurtuko dituzte zapatuan Udal Pilotalekuan. Alustiza-Peñagarikano/Koka-Barriola eta Salaberria-Balardi/Leiza-Begino partiduek osatuko dute 17:00etan hasiko den jaialdia.

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

**Bergara-Elgoibar**  
Neskak. Zapatua. 12:00. Ipintza  
**Bergara-Elgoibar**  
Preferente maila. Zapatua. 16:00. Agorrosin.  
**Bergara-Elgoibar**  
Lehen erregionala. Zapatua. 18:00. Ipintza.  
**Bergara-Orioko**  
Lehen mailako gazteak. Domeka. 11:00. Ipintza.

### SASKIBALOA

**Bergara-Aletico San Sebastian**  
Gazte mailako mutilak. Zapatua. 12:15. Kiroldegia.

### PILOTA

**Bergara I-Antzuola** (Infantilak)  
Gipuzkoako txapelketa.  
Aurretik pilota eskolako bi partidu izango dira.  
Egubakoitza. 19:00. Udal Pilotalekua.  
**Bergara-Arrasateko**  
(Kadete, gazte eta senior mailak)  
Deba Arroko Txapelketa.  
Martitzena. 19:00. Udal Pilotalekua.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Tolosa 3 Bergara 2 (Preferente maila)  
Pedrusko 7 Bergara 0 (Lehen erregionala)  
Martutene 1 Bergara 3 (Ohorezko m., gazteak)  
Bergara 3 Amaiak Bat 3 (Lehen m., gazteak)  
Bergara 2 Lengokoak 1 (Ohorezko m., kadeteak)  
Bergara 2 Aurrera Ondarroa 0 (2. m., kadeteak)  
Bergara 1 Urola 0 (Infantilak)

### ESKUBALOA

Bergara 36 Aierru 25 (Senior mailako mutilak)  
Bergara 24 Egia 34 (Gazte mailako mutilak)  
Bergara 20 Donibane 19 (Kadete mailako mutilak)

### SASKIBALOA

Aldapeta 65 Bergara 57 (Senior mailako mutilak)  
Tolosa 53 Bergara 48 (Gazte mailako mutilak)  
Bergara 31 Beasain 60 (Kadete mailako mutilak)

### PILOTA

Gipuzkoako txapelketa  
Billabonak 3 Bergara 1 18 (Infantilak)  
Udaberriko txapelketa  
Bergara 22 Igeldo 21 (Bigarren m., kadeteak)  
Bergara 5 Tolosa 22 (Lehen m. kadeteak)  
Bergara 4 Beasain 22 (Gazteak)  
Bergara 19 Tolosa 22 (Bigarren m. seniorrak)  
Bergara 21 Usurbil 22 (Lehen m. seniorrak)

## JOKOZKANPO

### Jose Mari Zezeaga

#### PILOTARIA

Titin III. arekin bikotea osatuz, Jose Mari Zezeagak debuta egingo du gaur binakako txapelketan, Mungian.

Txapelketako faboritoen artean zaituztegu. Noraino iristeko asmoa?

Ikusiko da. Bikote nahiko parekatuak daude. Asegarceko zein Aspeko multzoetan, eta finalerdietarako sailkatzeko borroka handia izango da. Lagun ona egokitu zait, eta gure jokoa egiten baldin badugu aurrean izan gaitzake. Zortea ere ezinbestekoa izango da.

**Lehen partiduan Tirapu eta Zearra izango dituzue etsai...**

Garrantzitsua da txapelketa garaipen batekin hastea, hurrengoetan konfiantza gehiagorekin jokatzeko. Ligaxkan garesti ordaintzen dira huts egiteak.

**Faboritorik?**

Gure multzoan Olaizola II-Errasti eta bestean Olaizola I-Patxi Ruiz bikoteek zeresana izango dute.

**Txapelketa polemikarekin hasi da...**

Gure enpresan ez da arazorik izan, baina Asegarcen nahiko nahastea egon da, Barriola kanpoan geratzeagatik nagusiki. Betikoa gertatu da: pilotari ezagunei umilei ukatzen zaien lagun-tza ematen zaie.



## JOXAN ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

## ARANE KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.  
BERGARA  
Tel. 943 76 74 09  
670 483 903

## AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara  
943 76 55 00



Angel Sanbartolome arituko da tronpetan eta Adalberto Martinez organoan

# Tronpeta barroko eta organo kontzertua izango da zapatuan San Pedro parrokian

MONIKA BELASTEGI

Angel Sanbartolome tronpeta barroko jotzaileak eta Adalberto Martinez organo jotzaileak egingo dute emanaldia. San Pedro parrokian izango da, 20:00etan. Kontzertuan XVI.etik XVIII. mendera bitarteko sei autoreren lanak egingo dituzte.


Emanaldian zazpi lan eskainiko dituzte Sanbartolomek eta Martinezek; horietako lau elkarrekin egingo dituzte, eta gainerako hirurak, organoak soilik. Bi musikariak eskarmentu handikoak dira.

Angel Sanbartolome Belgikan jaioa den arren, Malagako Musika Kontserbatorioan hasi zituen musika ikasketak, eta Madrilgo Errege Kontserbatorioan bukatu. Tronpeta ikasketei dagokionez, Parisen ikasi zuen Maurice Andre eta Arturo Sandoval bezalako irakasleekin. 1991ko irailean, Bremengo Nazioarteko Tronpeta Ikasturterako ikasle aktibo aukeratu zuten, eta izen handiko orkestra, interpretatzaile eta bakarlariekin lan egiteko aukera izan zuen; besteak beste, Los Angelesko Orkestra Sinfonikoarekin eta Berlingo Filarmonikoarekin.

Gaur egun hainbat orkestrarekin lan egiten du, esaterako, Madrilgo Sinfonikoa, Reina Sofia, Radio Television Españolako Sinfonikoa eta Euskadiko Sinfonikoa. Horrez gain, Ciudad de Malaga Orkestrako tronpeta bakarlaria da.

## ADALBERTO MARTINEZ ORGANO JOTZAILEA

Madrilgo Errege Musika Kontserbatorioan egin ditu musika ikasketak. RTVEren Orkestra Sinfonikoarekin eta Koruarekin



GIPUZKOAKO ORGANOK


San Pedro elizako organoa aukeratu dute kontzertua egiteko.

egin du lan maiz, Madrilgo Errege Teatroko emanaldietan. Horrez gain, mundu osoan zehar eman ditu kontzertuak, eta hainbat grabazio ere egin ditu irrati zein telebistarako. Madrilgo Katedraleko organo jotzaile titularra

izan da, eta Errege Musika Kontserbatorioko irakasle ere bai. Gaur egun, Malagako Musika Kontserbatorio Nagusiko Katedraduna da, eta Granadako Arte Ederretako Errege Akademiako kide.

## SEI AUTORE

Honako autore hauen obrak eskainiko dituzte bihar, San Pedro parrokian, bi musikariak: H. Purcell, A. Guilmant, A. Corelli, Ch. M. Widor, T. Albinoni eta J. B. Léoillet.



## Erakusleho lehiaketako sariak

Urtarrilaren 3an banatu zituzten Udaleko ordezkariak Gabonetako erakusleho lehiaketako sariak. Saria jaso zuten dendak honako hauek izan ziren: Ninika, Kilika, Kanela, Maya eta Gisasola dendak.

Irabazleetako bakoitzak hogeita bost mila pezetako saria eta oroigarria jaso zuen Nere Amaia Zabala Kultura zinegotziaren eskutik. Saria jaso zuten dendetako ordezkariak eta Kultura zinegotzia daude argazkian, Kultura Etxean. /MONIKA BELASTEGI

## KULTURAPILULAK

### Argazki ikastaroa Pol-Pol argazki taldearekin

Pol-Pol argazki taldeak eta Udaleko Kultura Sailak argazkilaritza ikastaroa antolatu dute. Ikastaro hori Pol-Pol argazki taldeko kideek eman go dute, eta urtarrilaren 22tik 30era eta otsailaren 4tik 6ra bitartean irauango du. Eskolak Zabalotegi aretoan (argazki taldearen egoitzan) izango dira, arratsaldeko 19:15etik 21:00etara arte.

Honako gai hauek jorratuko dituzte ikastaroan: zure makina, diafragma, obturadorea, objektiboak, argia, pelikula, argi-neurketa, flasha, filtroak, hurbiltze-argazkiak eta konposizioa. Plaza mugatuak izango dira; taldea gehienez hogeik askekoa izango da, eta gutxienez hamarrekoa aurrera egiteko.

Argazki ikastaroaren prezioa 30 euro da (5.000 pezeta). Interesatuak Kultura Etxean eman beharko dute izena. Argibide gehiagorako 943 763090 (Benito) telefonora deitu.

### Udal Musika Bandaren emanaldia domekan

Udal Musika Bandak emanaldia egingo du domekan, udal pilotalekuan, 12:30ean.

Bandako kideek bost lan egingo dituzte; honako hauek hain zuzen ere: Alfredo Gonzalez Chirlaqueren, *Intxaurrondo martxa*; C. Saint-Saënsen, *La princesa amarilla*; A. W. Katelbeyren, *Bells across the meadows*; J. Serranoren, *La canción del olvido* eta F. Sparke-ren, *Hannover Festival*.

### Amodiozko Gutunen lehiaketan 107 lagun

Parte hartu duten 107 pertsona horietatik, Bergarakoak 7 izan dira, Debagoienekoak 15, Gipuzkoakoak 60, Bizkaikoak 35, Arabakoak 8 eta Nafarroakoak 3. Aurten ez da Iparraldeko partaiderik izan, eta Euskal Herri kanpokoak ere ez. Bestalde, emakumezkoak izan dira nagusi; parte hartzaileen %69 emakumezkoak izan dira, eta gainerako %31, gizonezkoak.

Epaimahaiari dagokionez, literatura eta kultura munduko lau pertsona oso ezagunek osatuko dute, honako hauek, hain zuzen ere: Arantxa Urretabizkaia, Jose Mari Velez de Mendizabalek, Esti-txu Fernandezek eta Ainara Elizondok. Sari banaketa, ohi bezala, San Balentin egunean izango da, otsailaren 14an.



E, TXO!

KONTZERTUAK GAZTETXEAN

Gaur, egubakoitza, gaueko hamarretan, kontzertua izango da Bergarako gaztetzearan. Bi talde hauek arituko dira: Ira et decesus eta Nor Jainkoa bezala taldeak, hain zuzen ere. Bihar, berriz, gaueko hamar eta erdietan, beste talde hauen kontzertua izango dugu, gaztetzearan hori ere: Astrozombies, Capitan Nemo eta Huevos de Kinder.

KARNABALETARAKO JAIALDIA GAZTETXEAN

Gaztetzekoak karnabaletarako jaialdi bat prestatzen ari dira. Horretarako, bilera bat egingo dute datorren otsailaren 3an, domeka, arratsaldeko 17:00etan, Gaztetzearan bertan. Jaialdi horretan koadrilen aktuazioak egitea aurrez ikusten dute Gaztetzekoak. Badakizue, beraz, animatu eta otsailaren 3an azaldu bilerara!

GAZTE INFORMAZIO PANELA HONDATUTA

Azkenaldian, behin baino gehiagotan azaldu dira hondatuta kultura etxeko sarreran gazteendako informazio panelen jarritan dituzten orriak. Erre, zikindu... denetik egin dute. Gauzak horrela, besteekiko errespetua dela-eta, horrelakorik gehiago ez gertatzea espero du arduradunak.

KUADRILLATEGIREKIN, ANTZERKIA

Antzerki tailerrak antolatuta dituzte oraingoa Kuadrillategikoak. Antzerkia eta gorputz espresioa landu eta gero, antzezlanen bat ere eskainiko dute, behar bada. Udal Euskaltegian duzue hitzordua, zapatuan, 15:30ean.

GUREGAIK/ ATERPEKIDE-AGIRIA

# Aterpetxeetara joateko agiriak eskuragarri

AINTZANE IRIZAR

**Aterpetxeetara joan ahal izateko aterpekide-agiria egin dezakezue Gazte Informazio zerbitzuan, kultura etxean. Agiri horrek ia mundu guztiko aterpetxeetara sartzeko aukera ematen du.**

Lau aterpekide-agiri mota daude: gazteendakoa, helduendakoa, familiendakoa eta taldeendakoa. Gazteen kasuan, hau da, 14 eta 25 urte bitartekoen kasuan, 5 euro ordaindu behar dira (832 pezeta). Gazte Txartela izanez gero, berriz, 2,5 euro (416 pezeta).

Aterpekide-agiriarekin batera, Estatuko aterpetxe guztien gidatxo bat ere emango dizue,

doan, Informazio Bulegoko arduradunak.

**TALDEENDAKO, HELDUENDAKO ETA FAMILIENDAKO**

Hogeita bost urtetik gorakoek ere lor dezakete agiria. Horiek 11 euro ordaindu beharko dituzte (1.830 pezeta). Adin txikiko seme-alabak dituzten familiek, berriz, 22 euro (3.660 pezeta). Azkenik, taldeendako agiriak daude. Horiek partaideen izenak eman eta 15 euro ordaindu beharko dituzte (2.496 pezeta).

Esan bezala, Gazte Informazio Zerbitzuan egin dezakezue agiria; eguenetan eta egubakoitzetan, 16:00etatik 20:00etara egoten da zabalik, eta zapatuetan, berriz, 09:30etik 13:30era.



la mundu guztiko aterpetxeetara sartzeko aukera ematen du agiriak.

LOTSABARIK/ Amaia Osa

## “Nahiko nagia naiz, ikasteko eta denerako”

AINTZANE IRIZAR

**Neska alaia da Amaia, eta hori ei da haren bertutea, alaia izan eta barre egiteko daukan erraztasuna. Ile apaintzaile izan nahiko luke Amaiak, eta horretan lanean ikusten du bere burua urte batzuk barru.**

• Txikitan, zer izan nahi zenuen?

Abeslaria eta ile apaintzailea; txikitan, asko gustatzen zitzaidan abestea, eta panpinei sekulakoak egiten nizkien ilean.

• Hemendik 20 urtera, zelan ikusten duzu zure burua?

Ezkondu barik, umeekin eta ile apaintzaile lanean.

• Gurasoek zer errepikatzen dizute behin eta berriro?

Ikasteko, formal portatzeko, esandako orduan etxeratzeko...

• Gurasoen kontrolpetik ihes egiteko taktika bat.

“Pelota” egitea, esandako orduan etxeratzuz, gurasoen kontuak interesarekin entzunaz...

• Bizitzan zeri ematen diozu lehenetasuna?

Lagunei, osasunari eta jaiei.

• Zure bertute bat?

Barre asko egiten dudala, alaia naizela eta gauzak lasai hartzen ditudala.

• Eta hutsune bat?

Oso inpuntuala naizela (guk jarritako hitzordura ere ordu erdi geroago azaldu da), eta nagi sama-

rra naizela, ez ikasteko bakarrik, denerako.

• Zerk amorratzen zaitu?

“Mate”-ko kontrolek.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Ilea. Aspertuta nagoenean, ilearekin jolasean ibiltzen naiz, denbora-pasa.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Ileari. Ile luze eta kizkurra gustatzen zait.

• Zer egiten duzu seduzitzeko?

Ezer ere ez; naizen modukoa azaltzen naiz beti.

• Fantasia sexual bat. Zeinekin eta non?

Etxeko dutxan, mutil ile luze eta kizkurdun batekin.



ADINA: 18 urte • IKASKETAK: DBHO • ZALETASUNAK: Futboleko jokatzeara eta gaiztakeriak egitea • LIBURU BAT: “Los escarabajos vuelan al atardecer”, María Griperena • FILM BAT: “Scary Movie” • MUSIKA TALDEA: Hamlet • KIROL TALDEA: Osasuna

TIRABIRAKA/ Peru Azkarate





## ZAHARREN ETXETIK



Egunotan amaituko dituzte Mizpirualdeko berritze lanak. Argazkian, lehen solairuan egindako taberna berria.

## Mizpirualde egoitzako berritze lanak nahi baino gehiago atzeratu dira

EDU MENDIBIL

**M**izpirualden lau hila-beteen egin beharreko berritze lanak ustekabeko atzerapena izan dute. Lanak 2000ko urrian hasi zituzten, eta egunotan amaitzekoak dira. Berritze lanek 162.273 euro inguruko aurrekontua izan dute (27 milioi pezeta).

Mizpirualdeko administratzaile Gregorio Iruetagoienaren arabera, obrak egiteko arrazoi nagusia izan da egoitzan bizi direnei zerbitzu hobea eskaintzea: "Batetik, Eusko Jaurlaritzaren 1998ko 41. dekretura egokitu behar genuen erresidentzia; bestetik, gaur egungo beharrei erantzuteko, hobekuntzak beharrezkoak ziren; eta, azkenik, barne funtzionamendua hobetzeak ere berebiziko garrantzia izan du".

Lanek zeresana eman dute egoitzan bizi direnen eta haien familiartekoen artean. Gutxi batzuek kekak azaldu dituzte egindako aldaketengatik eta izanda-

ko atzerapenagatik. Hala ere, Iruetagoiena ziur da aldaketak hoberako izango direla: "Denborak esango digu asmatu dugun edo ez, baina ni baiezekoan nago. Zerbitzuak hobetu ditugula nabaritu da, eta langileen, egoitzako bizilagunen eta haien familiakoen onerako izango da".

### Zerbitzuak hobetu nahian

**Gaur egun, 50 lagun ari dira Mizpirualden lanean. Berritze lanak nahi baino gehiago atzeratu dira, eta, hori dela eta, Mizpirualdeko arduradunek hainbat kexa jaso dituzte. Hala ere, Iruetagoienak azpimarratu duenez, bizilagunen beharrak kontuan izan dituzte obrei ekiteko. Zerbitzuak hobekuntza eskaintzea da helburu nagusia.**

Beheko solairuan langileen bulegoak kokatuko dira eta lehenengo solairuan, bizilagunei zuzendutako ia zerbitzu guztiak: erizaindegia, errehabilitazio gela, ile apaindegia, telebista gela (meza esateko erabiltzen dena), taberna edo eskulanetarako gela. Liburutegiak beheko solairuan jarraituko du. Nobedade gisa, erretzaile ez direnendako gela bat egokitu dute lehenengo solairuan. Erizaindegian hiru erizain txandakatuko dira, 07:30etik 22:30era. Epe laburrean Mizpirualden mediku bat izatea da Iruetagoienaren asmoa.

### ERRESIDENTZIA BETETA

Gaur egun, 115 bizilagun dira Mizpirualden, eta hara joateko zain daudenak ere badira. Iruetagoienak 15 urte daramatza Mizpirualden lanean, eta haren esanetan, eguneroko funtzionamenduan nabaritu da aldaketak onerako izan direla. Aurrekontua 162.273 euro ingurukoa izan da; Diputazioaren eta Elgetako, Antzuolako eta Bergarako udalen artean ordaindu dituzte lanak.

## LABUR

### Karta eta billar txapelketak izan ziren San Joxepen Gabonen atarian

Partaidetza handia izan zen abenduaren 17tik 20ra bitartean San Joxepen jokaturako txapelketetan. Irabazleak honako hauek izan genituen: tutean, Julian Aginagaldek eta Jesus Ruiz de Larramendik; Jesus Mansori eta Manuel Munarrizi irabazi zieten; musean, Esteban Fernández de Arroiabe eta Jose Agirre izan ziren txapelketan, finalean Felix Eguren eta Antonio Aizkorrialderi irabazita; briskan, berriz, Isabel Rejanok eta Ana Mari Morazak jantzi zuten txapela. Txapelketak Eli Garmendia eta Ascension Fernández izan genituen. Gabriel Medinak irabazi zuen billar txapelketa, eta Angel Herrán sailkatu zen bigarren.

Bestalde, abenduaren 22ko zozketan Jesus Igartuak, Isabel Gallastegik eta Albino Diazek saski bana irabazi zuten, 795 zenbakari esker, eta Errege eguneko loteriarekin batera zozkatutako beste saskia Nicolas Arzelusi tokatu zitzaion (320 zenbakia).

### Imersoren termalismo programan parte hartzeko izena emateko epea zabalik

Estatu osoko bainuetxeetan egonaldiak egiteko izenemate epea zabalik dago. Otsailetik abuztura bitarteko egonaldietarako izenematea astelehenera arte (urtarrilak 21) egongo da zabalik. Bestalde, irailtik abendura bitarteko egonaldietarako maiatzaren 16ra egongo da izena emateko aukera. Imersoren termalismo programan 65 urtetik gorakoek edo haien laguntzaileek parte har dezakete. Argibideak San Joxepe elkartearen, 943 76 21 40 edo 943 76 30 09 telefono zenbakietan.

## ZAHARREN AHOTIK

### Jose Antonio Laskurain

SAN JOXEPEKO PINTURA IRAKASLEA


**Jose Antoniok hamar urte daramatza San Joxepen egiten duten pintura ikastaroko irakasle lanetan. Hamar bat lagun ari dira egubakoitzero izaten diren eskoletan.**

#### Zaila da pintura irakastea?

Nik betidanik margotu izan dut eta ez zait askorik kostatzen. Ikasleek interesa jarritz gero, nahiko izaten da, eta ni gustura nabil eurekin, gogoz ikusten ditudalako. Batzuk lehendik ere ibilitakoak dira ikastaroan. Egubakoitzero izaten ditugu eskolak, 15:00etatik 19:00etara.

#### Noiz hasi zinen margolaritzan?

Gaztetan. 1944tik 1946ra bitartean, Simon Arrietaren ikasle izan nintzen, Barrenkalen, Eustaquio Agirreolearen ganbaran. Eta margotzen



jarraitzen dut, San Joxepen eta etxean dudan estudioan. Erakusketaren bat ere egiten dut noizean behin. **Zelako pintura atsegin duzue?**

Figuratiboa. Simon Arrieta berak eta Ignacio Zuloagak egiten zutenaren antzekoa gus-tatzen zait gehien.




Asteburuetan bertako  
babak eta saiheskia

SALBADOR 10 ELGETA  
Tf. 943 76 82 73

## ZABALA

JATETXEA • OSTATUA





JAUNARTZEAK,  
EZKONTZAK, BATAIOAK,  
KINTOENTZAKO  
BAZKARIAK...

Labegaraieta, Ibarra 14  
BERGARA.  
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Bi iturri hauek kale berean daude. Non?

BERGARAKO ZUHAITZAK

Hiru arantzadun akazia

(*Gleditsia Triacanthos*)

MAITANE ARIZABAETA

**B**errogei metro har dezake hosto erorkorreko zuhaitz honek. Azala zartatua, eta enborra eta adarrak, hiru puntako arantzekin osatuak ditu, nahiz eta lorezaintzan inerre bariatateak arantzarik ez izan. Hostoak konposatuak, pinatuak eta bipinatuak dira, hosto txiki askorekin osatuak. Loreak, txikiak eta berdeak dira, eta ez dute baliorik apaingarri modura. Fruitua, leka zapaldu bat da, kolore marroi iluneko, eta denbora luzez irauten du.

Lorezaintzan oso aproposa da; alde batetik kale eta pasealekuetan ilaran landatzeko, oso azkar hazi eta hotza, lehortea eta lur ez oso aberatsak onartzen baititu, eta bestetik, hesi arantzadunak egiteko, inausketak ondo jasaten baititu. Bergaran, Usondo parkean aurki dezakegu.

Egurra elastikoa, gogorra eta iraunkorra da, erabilera anitzekoa (ikatzka egiteko...) erraz leundu eta lantzekoa baita. Akaziaren fruitua, sasoi baten, ganadua elikatzeko erabiltzen zuten, nahiz eta komenigarria ez izan, efektu libragarria baitu.


*“Azkar hazi eta hotza, lehortea eta lur ez oso aberatsa onartzen ditu espezie honek”*



E.M.

GALDEDEBALDE

- |   |  |  |
|---|--|--|
| <p><b>1.</b><br/>Zubiaurreko tunela zulatu berri dute. Zenbat metroko luzera dauka aipatutako tunelak?</p> <p>A/ 320.<br/>B/ 290.<br/>C/ 180.</p> | <p><b>2.</b><br/>Zenbat bizilagun dira gaur egun Mizpirualde Erresidentzian?</p> <p>A/ 95 bizilagun.<br/>B/ 115 bizilagun.<br/>C/ 200 bizilagun.</p> | <p><b>3.</b><br/>Zein taldetan ari da Iñaki Manuel eta Mikel Plazaola eskubaloi jokalaririk?</p> <p>A/ Bergara.<br/>B/ Arrate.<br/>C/ Aloña-Mendi.</p> |
|---|--|--|



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

**BENI PEREZ**entzat izan da 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Beniri! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Lehenengo eta zazpigarren zutabeetan** / Galde debalde: **1-C, 2-B, 3-C.**



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Skip tablet garbigarria

Erraz plantatzeko egokia

**4,74€**

789 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



**TABERNA**

Kruz Gallastegi, 1. BERGARA. 943 76 54 69

**GURIA**  
Taberna

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34


**ARDATZA**  
Brikolajea

Ateak eta zokaloak  
Horma-armairuak  
Sarrailak  
Heldulekuak

Koadroak markoan ipini  
Era guztietako moldurak  
Apalak  
Kaxoiak

Masterreka, 4-behea. Bergara. 943 76 18 93





BERGARA  
**Andoni Elortza**  
Urtarrilaren 15ean 3 urte.  
Zorionak! Etxekoak; batez ere, Joseba eta Iñigo.



BERGARA  
**Olatz Azkarate**  
Urtarrilaren 17an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Jon eta aita eta ama.



BERGARA  
**Aiora Etxezarreta**  
Urtarrilaren 13an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Beñat eta etxeokak.



BERGARA  
**Nagore Iñurrategi**  
Urtarrilaren 21ean  
urtebetetzea. Zorionak!  
Aiora eta Beñat.



BERGARA  
**Olatz Basterra**  
Urtarrilaren 20an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta Maddi.



BERGARA  
**Maddi Basterra**  
Otsailaren 8an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta Olatz.



BERGARA  
**Inazio Dulanto**  
Urtarrilaren 15ean 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Marta Zubia**  
Urtarrilaren 18an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak eta Maria.



BERGARA  
**Amaia Motoso**  
Urtarrilaren 22an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Ane eta gurasoak.



ANTZUOLA  
**Julen Fernandez**  
Urtarrilaren 15ean 12 urte.  
Urte askotarako!  
Koadrilakoak.



BERGARA  
**Julen Garmendia**  
Urtarrilaren 19an 8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Olaia Santamaria**  
Urtarrilaren 15ean  
urtebete. Urte askotara-  
ko! Mari.



BERGARA  
**Amaia Laso**  
Urtarrilaren 22an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Eider eta etxeokak.



BERGARA  
**Amaia Otsoa-Aizpurua**  
Urtarrilaren 20an 13 urte.  
Zorionak! Etxekoak.



BERGARA  
**Aratz Zuazo**  
Urtarrilaren 19an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Jurgi eta gurasoak.



BERGARA  
**Irati Rodriguez**  
Urtarrilaren 23an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.

**Zorionak!**

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.  
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.  
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.  
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

BABESLEA

*Gabonetako opariak egiteko...*

**ARGAZKI**  
Fotografia

**ERREBELATUAK** Album bat, Kopia index-a eta erroilu bat opari.  
**ARGAZKIGINTZA DIGITALA** eta oro har argazkigintzaren inguruan behar duzun material guztia.  
**ZERBITZU DIGITALA** Erretratu zaharren eta bestelako konponketak, fotomuntaiak eta abar...  
**ESKANER ZERBITZUA** Argazki, diapositiba edo gardenkiak eskaneatzeko bidea. Curriculumerako, Internetarako, eta abar...  
**KOPIA DIGITALAK** Artxibo informatiko batetik. (Diskeeta, optikoa, zip-a, CD rom-a...)

ARGAZKI • Barrenkalea 16 • Tel. / Faxa: 943 76 20 66

**Adi!** Argazkiak emateko lekuak:

**Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33  
**Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara  
**Elgeta:** Erosle-Baltxungo

**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tel. 943 71 24 25  
BERGARA

**Aldoka Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA

**JAUJA KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA

**FRONTOI**

TABERNA

Fraiskozuri z/g.  
BERGARA  
943 76 05 09

**IBARGYREN PENTSYAK**

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak

**Biona**  
BANATZAILEA

San Pedro 3. BERGARA.  
Tf. 943 76 23 79

**etxalar**

kafetegia  
kruasantegia

Boni Laskurain 4  
BERGARA  
943 76 50 68

**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia

San Pedro 21  
BERGARA  
943 76 20 49

Zubillaga 10  
ONATI  
943 78 24 13



#### ALBAITARIAK

- ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19  
**ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak)** 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13  
**ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albitari ofiziala)** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13  
**IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak)** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

#### ANALISI KLINIKOAK

- LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

#### BARNE MEDIKUNTZA

- IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

#### DENTISTAK

- AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23  
**ARAMBURU HORTZ KLINIKA** Telesforo Aranzadi 1, behea. 943 76 02 46  
**ASTIAZARAN SOLOZABAL** Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95  
**BERGARA HORTZ KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77  
**GOROSABEL J. Alberto** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88  
**GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S.** Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54  
**IRIARTE Idoia** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65  
**LASKURAIN HORTZ KLINIKA** Boni Laskurain 4, behea. 943 76 56 57  
**TRIPALDI Enrike** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

#### ERREHABILITAZIO FISIKOA

- LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

#### FISIOTERAPEUTAK

- ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71  
**BASTERRETxea, Maria** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

#### HOMEOPATA

- GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

#### GINEKOLOGOA

- SERRANO Jose Ramon** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

#### MASAILARIAK

- AZPEITIA Irune** Fraiskozuri, 4. 943 76 73 43  
**BELASTEGI Mariasun** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 02 03  
**CASANELLAS Jabier** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78  
**ETXEBERRIA Ana** Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13

#### MEDIKUNTZA ESTETIKOA

- BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62

#### MEDIKUNTZA OROKORRA

- OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50

#### PODOLOGOAK

- ALTUBE Edurne** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84  
**AZPIAZU Arantzazu** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

#### PSIKIATRA

- GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64

#### PSIKOLOGOAK

- JOKABIDEAREN PSIKOLOGIako KABINETEA** (Azterketa psikologikoa). 943 76 59 39  
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80  
**URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13  
**ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

BERGARAKO  
**OSASUN GIDA**  
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.



# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko urtarrilaren 18a / 97. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea, 33 • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

## Hirigune historikoa birgaitzeko plan bereziaren aurrerapena jendaurrean dago

AINTZANE IRIZAR

Abenduan aurkeztu zuen Iñaki Berasategi arkitektoak Antzuolako hirigune historikoa birgaitzeko plan bereziaren aurrerapena. Orain, otsail hasierara arte, jendaurrean izango da, nahi duenak alegazio eta proposamenak egin ahal izateko.

Luzea izango da oraindik prozesua. Plana izango denaren aurrerapena besterik ez da Berasategi aurkeztu berri duen proposamena. Aurrerapen horri alegazioak egiteko epea zabalik dago, eta horiek aztertu ondoren onartu beharko dute proposamena. Gero, proposamen zehatzagoa egin beharko du arkitektoak, eta berriro ere jarriko dute jendaurrean. Behin-behineko izaeraz onartu ostean, azkeneko pausoa behin betikoz onartzea izango da.

### IRIZPIDEAK ETA IRTENBIDEAK ZEHATZU

Lehendabiziko proposamen hori teknikoek egiten dute. Argi laga behar da Udalak ez duela oraindik dokumentua onartu, teknikoek proposamena besterik ez dela.

Arau subsidiarioen berrikuspenak ere aurrera jarraitzen du; ez dute oraindik behin betiko dokumentua onartu; arauak hainbat gune urbanistikotan banatzen dute herria, horien artean, hirigune historikoa dugu. Hirigune hori arautzeko, plan



Alde zaharra mantendu, babestu eta birgaitzea izango da plan bereziaren helburua.

AINTZANE IRIZAR

*Aurkeztu berri duten aurrerapenak hainbat irizpide eta helburu orokor markatzen ditu*

berezia eskatzen dute arauak, eta horixe egingo du, hain zuzen ere, plan berezi horrek: edozer konponketa edo lan egin behar dela

*Teknikoen proposamena da aurrerapena, Udalak ez du oraindik onartu*

ere, hainbat irizpide markatuko ditu, baita hainbat irtenbide zehaztu ere.

Berasategi proposatutako

*Plan bereziaren helburua da alde zaharra mantentzea eta, era berean, birgaitzea*

aurrerapenak oso irizpide orokorrak markatzen ditu. Helburua da hirigune hori babestu eta mantentzea, baina, era berean, baita

birgaitzea ere, bizilagunen bizi kalitatea eta eraikinen euren kalitatea hobetzeko asmoz. Aurrerapenean hirigunearen antolaketari buruzko irizpideak zehazten dira, batik bat.

### HAINBAT PROPOSAMEN

Plazan, Kalebarrenen eta Kalegoin oinezkoei lehentasuna ematearren, ibilgailuen eta oinezkoen gunea bateratzea proposatzen du, bi gune horiek piboteekin edo bestelako elementuekin bereiztuta.

Bestalde, proposamenaren arabera, plaza eta frontoira bidean dagoen plazatxo bateratu nahi ditu.

Errekaren desbideraketa egingo dela suposatuta, eta hori aprobetxatuta, gune urbanizatuak eta egoteko lekuak egitea aurrez ikusten da.

Alde zaharreko hainbat eraikinek kontrari dazkaten garaje edo bestelako eraikinak kentzea ere aurrez ikusten dute. Baita hainbat etxe botatzea eta eraikitzea ere.

Dena dela, esan bezala, aurrerapen horretan batzen diren irizpideak eta irtenbideak orokorrak dira. Hurrengo pausoa izango da, aurrerapena onartzen denean, dokumentu zehatzagoa egitea. Dokumentu horretan alde zaharreko etxe bakoitza banan-banan aztertuko da, eta bakoitzaren inguruko irizpide zehatzak markatu: bota egin behar den edo ez, solairu gehiago egin dakiokkeen edo ez, eta abar.



Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak  
Teilatuak  
Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA.  
Tf. 943 76 60 89

GoRoSTi

Taberna

943 76 62 96  
Zurrategi plaza  
ANTZUOLA



## TELEFONO JAKINGARRIAK

### OSASUNA/LARRIALDIK

DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Medikua	943 76 62 23
Praktikantea	943 76 63 80
Udaltzaingoa	943 76 62 46
Ertzaintza	943 76 53 40

### UDALA

Udaletxea	943 76 62 46
Liburutegia	943 76 60 65

### BESTELAKOAK

Idolaz	943 78 60 12
Herri ikastetxea	943 76 62 68
Jubilatuena elkartea	943 76 62 71
Abadetxea	943 76 64 16
Anelkar (Kortxi)	943 78 70 65
Taxiak:	
Antonio Fernández	669 15 65 40
Jesus M. Fernández	607 31 85 60

## MEZAK

### ANTZUOLAKO PARROKIA

Lanegun eta zapatuetan: 19:30  
Domeka eta jaiegunetan: 09:00, 11:30

### UZARRAGAKO PARROKIA

Domeka eta jaiegunetan: 10:00

## OHARRAK


### GAZTETXEKO MATERIAL BILA

Otsailean, gaztetezari buruzko erakusketa egin nahi dute. Horretarako, gaztetezko argazkiak eta bestelako materiala batu nahi dute: pegatinak, kartelak, eskuorriak... Etxean halakorik izanez gero, Amagoia Romerorengana jo dezakezue, edo Miren Urriategiri deitu 656 77 32 86 telefono zenbakira.

### KARNABALETARAKO ENTSEGUAK

Hasita daude dagoeneko karnabaletarako entseguekin Oinarin dantza taldekoak. Otsailaren 10ean ospatuko dira ihauteriak Antzuolan. Mutilek sorgin dantza egingo dute, eta parte hartu nahi duenak Andres Arbulurengana jo dezake. Gainerakoek, berriz, Lantzeko ihauterietako dantzak egingo dituzte. Parte hartu nahi dutenak Eguzki auzoko lokalean egiten diren entseguetara joan daitezke, martitzenean, iluntzeko 20:30ean.

## BASERRIZBASERRI/ Sarasketa



### JAUREGITARRAREN ETXEA

Badirudi XV. mendeko baserria dela, 1499koa da eta Sarasketari buruz dagoen lehen aipamen dokumentala. Baserriaren arkitekturari dagokionez, atzealdean daukan arkuak da azpimarragarriena: harlanduzko dobelez egindako arkuak da, Azkarate baserriarenaren antzerakoa. Seguruena, XVI. mendekoa izango da arku hori. Esaten dutenez, militar buruzagi bati zor zaio ate horren eraikuntza; dirudienez, etsaien erasoaldietatik eroso irteteko, atzealdeko atetik ihes egiten zuen. Bada-go baserri honi buruzko datu bitxi bat ere: Antzuolan, baserri honetan bildu zen azken gari-uzta, 1983. urtean, hain zuzen ere. XVII. mendetik, Jauregitarrak bizi izan dira hantxe, eta baita gaur egun ere. Honako hauek bizi dira Sarasketan: Juan Francisco Jauregi, Bibiana Guridi eta Marina Jauregi. /AIN-TZANE IRIZAR /ITURRIA: IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZEN 'ANTZUOLAKO BASERRIAK ETA ERROTAK'

## ANTZUOLAKO HIZKERAN

### ESAMOLDEA

#### • NARRUKUA HARTU

1. Golpea hartzea. *Sekulako narrukua hartu neban lehen-guan.*

2. Ustegabeko erantzuna; jokabidea. *Hortzetakua hartzia edo emotia ere erabiltzen da. Horrek hartu bihar dittu, horrek, narrukuak! Kasu honetan espabilatu beharra daukala esan nahi du.*

### ATSOTITZA

#### • Goizian abogau eta atsaldian abade.

Lan egin nahi ez zuenarentzako horiexek ziren lanik onenak; izan ere, abokatuek arratsaldean egiten zuten lan, eta apai-zek goizez.

### HITZAK

#### • SARRAMARRA

Ganorazko gauza ez dena, hondarrak... *Harek jorria jaukane gehixena, olua, txidarra eta dana hortako sarramarria. / Kendu itzazue sarramarrok hemendik!*


#### • NEKEZA

Zaila. *Nekeza da hori dana buruz ikistia. Zail hitza nekez erabiltzen dute herriko zaharrek, nekez hitza erabiltzen dute, gehienbat.*

Jone Larrañagaren

'Antzuolako hizkera' liburitik

## ATREBENTZIAEZPADA/ Asteburutan herrixan geratu ala kanpora juten zara?



**MIKEL FORTUNA**  
18 urte

Egunian zihar Antzuolan geratzen gara, baiña gabian, *puntazua* emoten ba dosku Bergarara juten gara. Orain, gaiñera, Gaztetxerik ez daukogunez...



**JOSE LOSADA**  
32 urte

Kanpora juten naiz juer-gara. Egubakoitzetan, zoezer, baiña bestela ez dago ezer. Gaiñera, pare bat taberna bakarrik dare pena merezi dabenak.



**AMAIA LAZKANO**  
28 urte

Egixa esan, nik ez dot asko irtetzen. Afarixak eta darenian, egoten da ambientia, baiña egixa da bestela ez dagoela gauza askorik.



**OLATZ ARRIETA**  
31 urte

Kanpora irtetzen dot; orai dala urte batzuk Zumarragara juten hasi nitzan eta han dauzkat lagunak; uste dot orain ambiente gehixago dagoela hemen.



**ESMERALDA MORCILLO**  
22 urte

Kanpora juten gara normalian: Zumarragara, Bergarara... danetik pixka bat. Hemen ez dago ezer, eta jende gehixena juten da kanpora.

# EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegori 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

## Igor eta Txomin

Margoak orokorrean

ANTZUOLA 609 157 131  
BERGARA 609 150 164

Juan Cruz  
ARGAZKIAK

Herriko plaza 4. ☎ 943 78 70 66. ANTZUOLA



# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko urtarrilaren 18a / 83. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea, 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

## Oso aurreratuta doaz Barrenenguan kokatuko den nekazari turismoko lanak

OXEL EROSTARBE

Hotela eta landa etxeaz gain, nekazari turismoko baserria ere izango du datorren hilabeteetik aurrera Elgetak. Nekazari turismoa Egoetxeaga auzoan kokatuko da, Barrenengua baserrian, hain zuzen. Sei gela bikoitz izango ditu, eta ezinduendako gertatuta dago.

Iaz hasi zituzten nekazari turismoko baserria zabaltzeko behar zituzten lanak egiten. Azkeneko ukituak ematen ari dira eta otsail erdialdean lan guztiak bukatuta egotea espero dute Agustin Beretxinagak eta Maite Sadak.

Argazkian ikus dezakegun moduan, nekazari turismoko baserriaren estruktura guztia egina dago. Gauzak horrela, leihoak, atak eta barruko altzariak jarzea geratzen zaie.

Nekazari turismoko baserriak sei gela izango ditu, guztiak bikoitzak eta komunarekin. Bestalde, ezinduendako arauak betetzen ditu baserriak. Beheko solairuan egongela eta sukaldea izango ditu. Ostatu hartzen dutenek ezin izango dute sukaldea erabili, baina otorduak bertan egiteko aukera



Otsail erdialderako barrualdea eta kanpoaldea guztiz egokituta egotea espero dute Agustin Beretxinagak eta Maite Sadak.

ra emango diete.

Nekazari turismoko baserria zabaltzeko, nekazaritzan edo abeltzaintzan aritu behar izaten dira ugazabak. Barrenenguan base-

rriko oiloak eta behiak dituzte, 100 buru inguru.

Dagoeneko zenbait turistak gorde dute lekua Aste Santurako nekazari turismo berrian. Hara

joaten diren bisitariek pottoken gainean ibiltzeko aukera izango dute seguruenik. Izan ere, aukera hori eskaintzeko asmoa daukate Barrenenguan.

*Otsail erdialdean zabaltzeko asmoa daukate Barrenenguako nekazari turismoa*

*Lo egitera doazen bisitariek otorduak bertan egiteko aukera izango dute*

*Aste Santuko oporretarako zenbait gela gordetzeko deiak jaso dituzte*

HERRITARREN HITZA / Jabier Arantzeta • Irakaslea

## Elgetako noble guztixak

Hurrengo domekia egun haundixa da Gipuzkuan; Donostian, Santu guapuan omenez tanborra jotzen ibilliko dira. Santu berorren omenez San Sebastianeko Kofradixakuak euren eguna ospatuko dabe Elgetan.

Ospakizunen artian, elizan kantatzen dan himnua etorri jata gogora, batez be hasieria, oso polita dalako. Baleike batzuk ez ezagutzia, horregaittik ifiñiko dot hemen: *Elgetako noble guztixak zure aurrean bildurik zugana gatoz Sebastian zu beti honratzeagatik*. Hasiera-hasieratik aipatzen da nobliak dirala biltzen diranak.

Emoten dau noble izatia gai inportantia zala sasoi batian, edo hori baiño inportantiaua, danen aurrian noble izate hori garbi lagatzia.

Españiako tradiziñuan noble izateko guraso nobliak bihar dira. Nobletasuna gurasuetatik umiengana berez pasatzen dan dohai bat da. Ez da ezer berezirik egin bihar noble izateko, eta, hori baiño txarragua, edozer eginda



**“Danok, edo behintzat askotxo, hor gabiz gure onurak goratzen“**

be noble segitzen dau batek holako odola ei daukalako. Hola dagoz dagozen lotsabako, ganorabako, eta abar noblien artian.

Euskal Herriko tradiziñuan, ostera, zatarkerixa galanta da norberen ontasunak aittatzen ibiltzia. Edozein modutan, Elgetan nobliak kantuan ibiltzen dira urtian

behin; kontutan hartu barik, benetan noblia danak ez daukala horretan ibilli biha-

rrik, norbera zelako noblia dan inguruak esango dabalako.

Dana dala, gaur egun dexente zabaldu da ohitura hori; danok, edo behintzat askotxo, hor gabiz gure onurak goratzen, eta hori jende askok egitten dabenez, hain itsusixa be ez da; eta txarragua dana, holakoik egitten ez dabena tontotzat hartzen dogu.

Bada, izan badira, gutxi badira be, holakuak be, eta horren omenez egin nahi neuke gaurkua. Iñori ezer esan barik euren zereginetan eta jardunian noble diran guztixei zorionak eta segi holan, benetako nobliak zeuk zarie eta.

LABUR

**Bainuetxeetako programan izena emateko aukera**

Imersoko bainuetxe programa gertu dago, erretiratuetzat, alarguentzat, ezintasunen bat dutentzat edo bestelako pentsiodunentzat. Egonaldiak (15 egun) Euskal Herriko bainuetxeetan izango dira. Abuztu aurretik joan nahi dutenek urtarrilaren 21a baino lehen eman beharko dute izena, eta irailetik abendura bitartean joan nahi dutenek maiatzaren 16a baino lehen. Informazio zabalagoa Udaletxean eska dezakezue.



KIROLAK

# Ione Muxika eta Aitor Kortazar ziklo-kroslari onenen artean

O.E.

**D**enboraldi bikaina egiten ari dira Ione Muxika eta Aitor Kortazar elgetarrak. Asteburu honetan Duranan izan diren Espainiako Ziklo-kros txapelketan hamargarren eta hamabigarren postuak eskuratu zituzten.

Neguko denboraldia amaitzeko hiru proba geratzen dira, eta Ione Muxika eta Aitor Kortazarrekin egon gara beraien balorazioa zein den jakiteko.

Ione pozik dago, denboraldi honetan ekin dio ziklo-krosari eta lortu dituen emaitzak oso onak izan dira, "Iñigo Igartuak animatu ninduen ziklo-krosean parte hartzera. Lehenengo lasterketa Itsasondokoa izan zen, Euskadiko txapelketa. Aurreko egunean bizikleta probatu eta hirugarren geratzea lortu nuen".

Abadiño, Muxika eta Ispasterko probak geratzen dira neguko denboraldia amaitzeko. Ione pozik dago, baina oraindik ikasteko asko daukala aitortu zigun, "Iñigo Igartuarekin aritu izan naiz aste hauetan entrenatzen. Asko daukat ikasteko, ziklo-krosa eta mendi bizikletaren artean alde handia dago eta". Elgetako Txirringulari Elkartearen atera du aurtengo lizentzia Ionek, eta Alfa Deco eta Biciprecision Igartuak lagundu diote lasterketa haue- tan parte hartzeko orduan.

Martxo aldera mendi bizikleta denboraldia hasiko da. Iaz lan bikaina egin zuen elgetarrak, eta aurtengoan, esperientzia gehiago izanda iazko denboral- diko emaitzak lortzea da bere hel- burua.

**AITOR ERE BIKAIN**

Aitorrek badaramatza hiru urte txirringularitzan. Aurtengoan denboraldi biribila egiten ari da, "zapatuan ez nuen Espainiako txapelketan zorterik izan, zorte pixka bat izan banu, aurrerago sailkatuko nintzatekeen sailka- pen orokorrean. Hala ere, egiten ari naizen denboraldiarekin pozik



IGOR ARIZMENDIARRIETA

*"Beste jende batekin  
entrenatuz, ikasteko  
asko daukadala  
konturatu naiz"*

**IONE MUXIKA**

*"Zorte pixka bat  
izan banu, postu  
hobea egingo nukeen  
zapatuan"*

**AITOR KORTAZAR**

nago. Gordexolako ziklo-krosa irabazi nuen denboraldi hasieran, eta Euskadiko ziklo-krosean bigarren postuan geratu nintzen".

Espainiako txapelketan hamabigarren postua egin eta gero, zapatuan Abadiñoako ziklo-krosean parte hartuko du Aitorrek. Negu gogorra eta gero, otsai- lean atsedinari tartetxo bat egin-

go dio, "hiru lasterketa geratzen dira neguko denboraldia amaitzeko, gero deskantsatu egingo dut, udaberrian bideko lasterke- tak etorriko dira eta".

Neguan egin duten denboral- diarekin gustura dira Ione eta Aitor. Batak mendi bizikletan eta besteak bidean, denboraldi luzea daukate oraindik aurretik.



## Jaiak gertatzen hasteko prest

Urtarrilaren 23an, gaueko 21:00etan, aurtengo Ferixa Nagusiak antolatze-ko lehenengo bilera egingo du Jai Batzordeak udaletxean. Bilerara herriko talde guztiak eta antolaketan parte hartu nahi dutenak gonbidatu nahi dituzte. Bileran, ekai- naren 27an hasiko diren jaietan izango ditugun ekintza eta ekitaldiak zeintzuk izango diren erabaki beharko dute. /O.E.



## Lapurrak Sesto baserrian

Aurreko barikuan eguerdiko 11:30 inguruan lapurrak sartu ziren Uriarte auzoko Sesto baserrian. Lapurrak indarrez sartu omen ziren, eta dena astinduta utzi zuten arren, ez zuten balioko ezer eramateko astirik izan. Jabeak ohi baino bizko- rrago etorri izanak eragotzi zuen lapurrei euren helburua bete- tzea, baliozko gauzetatik oso gertu zebiltzan eta./O.E.

**Aintzane denda**



*Zugandik gertu,  
behar duzun beste*

Domingo Iturbe 4, ELGETA  
Tel: 943 768297



**Elgeta-Piel**

**Neguko denboraldi berria**

Astelehenetik barikura:  
17:00-20:00

Zapatuak:  
10:00-13:00 eta 17:00-20:00  
Domekak: 11:00-13:30

Domingo Iturbe 8, ELGETA  
943 76 81 12

**GOIO  
SARASUA**

Igeltserotza lanak

Tei atuak  
Sukaldeak  
Etxaurreak  
Komunak

Otzango Behekoa Baserria  
OIKINA  
Tel: 943 86 01 56

**EROSLE**

**M. Asun Agirre**

Salbador 26  
ELGETA  
Tel: 768190

**JAR EZAZU  
HEMEN  
ZURE  
PUBLIZITATEA**

Goibekokale



## ERRETRATUZAHARRA

## Elgetako mus txapelketa egitten zanakua

**A**zpaldixan nahiko lagata dagon arren, lehenau urtero antolatzen zeben herriko tabernari eta elkartiek mus txapelketa.

Hau erretratuau 1975 urteko txapelketakua da. Lehenau, Ozkarbi Elkartia zagon lekuan etarata dago erretratua, gaur egunian, Haizea tabernia dagon lekuan.

Elgetako mus txapelketan herritar morduak hartzen zeben parte, eta Gabon aldera izaten ziran finalak. Erretratuan ikusten dittugunak txapelketan lau lehenenguen artian geratutako bikotiak dira: Jose Luis Gorosabel eta Gotzon Elgoro alde batetik, eta Jabier Arantzeta eta Joxe Iñaxio Erostarbe bestetik izan ziran hemen urteko finala jokatu zebenak. Zeintzuk irabazi zeben errez asmau geinke, txapela buruan jantzita pozik ikusi geinkez erretratuan eta.

Erretratuan beste bi bikote be badare, Fermin Iribar eta Gabino Abasolo batetik, eta Jose Arrizabalaga eta Bittor Agirreazaldegia bestetik.

Txapelketan irabazitako sarixak



jasotakuan, afarixa egitteko ohitturia zeuken bertan parte hartzen zeben guztixek. Kontau dozkuenez, ordu txikixak arte ez ei zan bukatzen herriko muslarixen jaixa.

Urtia: 1975.

## ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako Kultura Etxera. Zain gaituzu!

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK


## Kanpazarreko bide estuan zihar

**B**ihorak bidian egoten dirala eta, istripun bat gertatzeko arriskua dago aspaldixan Elgeta eta Kanpazar arteko bidian. Aurrekuan irakurle baten mezua jaso giñuan, Arrotako baserri parian, gutxienez hamar bat bihor egongo zirala esanez. Behelaiño artian edo, desagertu ziran gu ailleau orduko. Arrota ingurua zelan aldatu dan ikusiko dogu oinguan.



± 1979

Arrasateruntz juateko bidia nahiko estua zan. Piñuak nahiko zabaldua egon arren, beste era bateko arbolak be ikusi geinkez.



2002

Urtiekin haundi egin dira piñuak, beste arbolak ez dira ageri. Egunak juan egunak etorri Kanpazarko bidian gero eta auto gehixau dabil.

**Z**umelaga  
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

Zuri Beltz  
margoak

Barnealde eta kanpoaldean  
erreforma


Pintura zerbitzu osoa  
Moketak

943 76 14 60

607 447 494

943 76 59 59

Bergara



Manufacturas LARRAÑAGA  
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

•Seinaleztapena  
•Jantziak


Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.





0%30

Bidekurutzeta 18 • Tel. 943 76 72 67 • Faxa. 943 76 29 03



**JU JITSU  
DEFENTSA PERTSONALA**

Patxi Escribano Lasa senseia hirugarren dan-a;  
'Ju Jitsu defentsa pertsonala'  
Eskoziako elkarteko kidea.



*Kirol Kluba*

**KIROL KLUBA**

Boni Laskurain 3  
Telefona: 943 76 35 71

**GAZTEEN ETA INFANTILEN KARATEA**

Luis Muñoz Perez senseia, gerriko beltza,  
hirugarren dan-a Espainiako Federazioan.  
VS 176 erregistrodun entrenatzailea.

**KARATE KLUBA**

Karate federatua Gipuzkoako Euskadiko  
eta Espainiako Federazioetan.





# Orain, European ere, Bezero desberdinentzat Aukera desberdinak.

Orain, Zure Europako bezeroei egindako bidalketen baldintzak erabaki ditzazkezu. EUROPREMIUM zerbitzuarekin, behar dituzun opzioak aukeratu: Interneten bitartez jarraipena egitea, Arrisku orotarako aseguruia, mugako kudeaketa, jaso izanaren agiria.....Horrela da Euro Express-en paketeria zerbitzua, Guipuzcoana Euro Express eta beste sektoreko enpresa europear liderrak elkartzen dituen paketeria sarea 20 herrialde baina gehiagotan. Galdetu eta ikus ezazu: zure enpresarako bezero bakoitza berezia bada, Euro Express-entzat ere.

943 763 642

Bergaran, San Juan Auzoan



[www.guipuzcoana.com](http://www.guipuzcoana.com)

 **GUIPUZCOANA**  
**EURO EXPRESS**